

ehun galdera



ISBN: 84 - 604 - 2350 - 6
Lege Gordailua: SS - 229 - 92

HITZAURREA

Aurten lehenengoz, Eusko Jaurlaritzak, EGA azterketa egin nahi dutenei baldintza berria ezarri die: Azterketa egin ahal izateko Atariko froga delakoa gainditu behar izana.

Aipaturiko froga honek zer nolako ariketa mota eskatzen zuen kontutan harturik eta, orain arte, erabilitako materialea ez zela guztiz egokia ikusirik, ariketa berrien premia agertu zitzaigun eta berehala hutsune hori beteko zuen lanari ekin genion, eskuartean daukazun bilduma osatuz. Liburu honetan agertzen den froga bakoitzak ehun galdera ditu. Horietako lehenengo hamabiak atxekirik doan textuari dagozkio, gainontzekoak test ariketak direlarik.

Erizpideak markatzerakoan beharrezko ikusi zen hizkuntza osotasunean hartzea, eta gramatikaz gain ezinbestekoak diren hainbat esakune, esamolde, esaera jator, erderakada, modismo, atsotitz eta abar.

Hasieran, gure lanaren helburua, EGArako ariketa berriak sortzea besterik ez bazaen ere, geroxeago goi mailetan zein ikaskuntza ertainetan zeinbait frogatarako baliogarria izan daitekeenaren usteak argitaratzera bultzatu gaitu.

Amaitu aurretik eskerrak eman ezinbesteko laguntza eman diguten Peio Astigarraga, Idoia Uriguen eta Ruben Arozenari.

EIBARRALDEKO AEK

EIBAR, 1992.eko, Martxoak 4.

DATORREN URTEAN LATZAGOA IZANGO DA

Bilboko Arte Garaikideko Museoaren proiektua sinatu eta lotu egin da aurten. New Yorkeko Solomon R. Guggenheim fundazioarekin egindako hitzarmenaren arabera, datozen bost urteetan egitekoa den erakustokia Bilboko Guggenheim museoa izango da. Instituzio publikoek 20.000 milioi pezeta inguru inbertituko dituzte bertan (miliar bat libera inguru). Eragiketa Honen alde ekonomiko zein artistikoa eztabaidagai bihurtu dagoeneko. Bitartean, Gipuzkoako Arteleku edota Zuberoko Uztaro arte tailerrak indartuz doaz eraskustoki-lantegi ereduari jarraiki.

1992. urterako Eusko Jaurlaritzako kultur aurrekontuak Guggenheim izango du zutabeetariko bat. Apostu honek, ordea, eragina izango du beste alorretan eta kultur elkarte txikienezako dirulaguntzak eten egingo dira. Aurten hainbat eremutan somatu dira halako diru eskasiak (Trikitilari elkarteak etab...) baina oro har ez du eragin handirik izan eta produkzio zein bariedade aldetik izan da zer aipatzekorik.

Aurrerapausu sakonak eman dira alor desberdinetan. Kulturgintza badela argi geratu da.

Joxemiel Barandiaran izan da 1991ko neguak atzean utzi duen pertsona. 102 urte betetzeko hamar egun falta zitzaizola zendu zen, gaixoturik, Ataungo Sara bere etxean...

Euskal literaturarako urte interesgarria izan da aurtengoa, narratibaren ikuspuntutik batez ere. Genero eta molde diferentetako lanak kaleratu izan dira 1991n zehar, eta horien artean hiru izan dira gaur egungo Euskal Herriari eta bere egoerari buruzko erreferentzia zuzena izan dutenak: Laura Mintegi, Koldo Izagirre eta Mikel Hdez. Abaituaren nobelak. Horrelakoen premia aldarrikatzen zutenek izan dute, beraz, zerekin ase.

Horretaz gain, urtearen azken txanpan idazle handien liburu berriak ezagutarazi dira, Duran-goko Azoka izarrak: Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi eta Edorta Jimenez.

Poesian, Joan Mari Irigoien, Patxi Ezkiaga eta Martin Iturberen poemario berriez landa, idazle gazte eta berrien lanak izan dira nagusi. Antzerkian, berriz, eskuko hatzekin aise zenbatzeko modukoa izan da liburu berrien kopurua: Guillaume Irigoien eta Patxi Zabaletaren lanak izan dira aipagarrienak. Saiakeran, berriz, Jose Azurmendi izan da berriz ere bestela beldurgarria ere izan litekeen hutsunea bete duen bakarra. Haur literaturak, aldiz, osasun onez jarraitzen du.

Itzulpengintzan, "Literatura unibertsala" sailak makalaldia bizi duela aipa daiteke, baina Igela argitaletxeak bere planak betetzen zintzo diharduela, indar eta ilusio eta literaturzaletasunez. Ereinek aurten zabaldu duen "Bartleby" saila ere aipagarria izan da arlo honetan.

BERTSOLARITZA INDARTUZ

Indartu, sendotu eta zabaltzeko bidean aurrera jarraitu du bertsolaritzak 1991n zehar. Horren lehen froga, Florentino Goiburu eta Patxi Iraola bertsolari goierritarren omenez urtarrilean egin zen Bertsolari Egunak izan zuen arrakasta.

"Hitzetik hortzera" telesaioaren arrakastaren itzalean, "Bertsolari" aldizkaria plazaratu zuten kazetari bertsozale batzuk ekainean. Lau zenbaki kaleratu ondoren, diru eskasiak dudatan jarri du aldizkari interesgarri honen iraupena.

Gainerakoan, txapelketak izan dira aipagai nagusia. Manolo Arozenak eskuratu zuen Nafarroako Txapela martxoan, eta Peñagarikanok Gipuzkoakoa abenduan. Arabako Txapelketa "ofiziosoa" den Prudentzio Deuna II Bertso Txapelketa, berriz Kepa Bizkarguenagak eskuratu zuen apirilean.

Haur eta gaztetxoek Euskal Herriko txapelketan, berriz, bi bizkaitar izan ziren nagusi: Unai Iturriaga 15etik beherakoenean.

Aurtengo urtean musikari dagokionean, berrikuntzarik izan du. Euskal musika heldutuz doala ikusi da eta urteetan finkatuz eta gozatuz joan da. Finkapen honen adierazgarri da, zigilu berri mordoska batek argia ikusi duela aurten. Iruñean Gor, Donostian Slam records, Zarautzen Esan Ozenki, Arrasaten Overdrive, Donostian No Compac Disk...

Talde berri ugari ere agertu dira euren lehen grabaketa binilozkoa eskuan dutela: Julio Kageta, La Perrera, Sociedad Alcoholic, Balerdi, Sasoi Ilunak, Danba, Hazurbaltzak... Maketa taldeei dagokienez berriz, esan bakarrik Euskadi Gazteak antolaturiko maketa lehiaketa berrehundik gora grabaketa izan zituztela antolatzaileek esku tartean. Taula utzi duena eta berriro taulara igo dena, biak ere disko banarekin. Lehenengoak agur esateko eta bigarrenak musikari berriro ekiteko. Utzi gaituena, noski, Delirium Tremens taldea izan da. Itzuli dena Xabier Lete. Elkar argitaletxearen eskutik "Eskaintza" disko berria kaleratu du. Iazko Durangoko Azokan agertu zen Xabier Lete, aspaldiko partez Antton Valverderekin batera kontzertuan. Jakinmin ugari sortu zuen eta arrakastatsua izan zen emanaldia.

Trikiti munduari so, esan Euskadi Irratiak Trikiti Piezen Lehen Lehiaketa antolatu zuela, Zabale anaiak txapeldun izanik. Polemika zaharra piztu zen berriro ere, trikitixa berria eta tradizionala laren artean.

Komunikabide desberdinetan, gurea barne, asko hitzegin da betiko arazoetaz, azpiegitura falta, zirkuitoa zabaldu beharra... Hala ere garbi geratu da, euskal musika ez dagoela lo, musika mota berriak jorrazteko beldurrik ez dela, talde berriak badatozela egurra emanez eta datorren urterako grabaketa berriak -Pottoka, Su Ta Gar, EH Sukarra...- ere izango dira. Ez dago suetenik.

Euskaldunon Egunkaria 1991.eko Abendua.

Honako 12 galdera textuari buruzkoak dira.

1.- Zeintzu izan dira Euskal Kultur arloan 91. urteak eman dituen berririk garrantzitsuenak?

- A) Kultur aurrekontuak eta Fredi Mercuryren heriotza.
- B) Guggenheim museoa eta Kultur aurrekontuak.
- C) J. M. Barandiaranen heriotza, Guggenheim museoa (E. J.ko Kultur aurrekontuak).

2.- Solomon R. Guggenheim fundazioarekin egindako hitzarmenaren arabera, zenbat urtetan egitekoa da museoa?

- A) Gauzak ondo joanez gero 6 urtetan.
- B) 4 urtetan.
- C) 5 urtetan.

3.- Guggenheim museoaren aldeko apostua egiteak zer ondorio dakarkio Euskal Herriari?

- A) Diru gutxiago izango da Kultur erakundeen artean banatzeko.
- B) Kultur elkarte txikientzako laguntzak eten egingo dira.
- C) Zailagoa izango da dirulaguntzaren bat lortzea.

4.- Noiz hil da J. M. Barandiaran?

- A) 102 urte bete ondoren.
- B) 102 urte betetzeko 10 egun falta zitzaizkiola.
- C) 101 urte betetzear zegoala.

5.- Euskal literaturatik zein arlotatik izan da interesgarria 91. urtea.

- A) Narratibaren ikuspegitik batez ere.
- B) Argitalpen aldetik.
- C) Kalitatearen aldetik.

6.- Antzerkigintzan argitaratutako liburuak...

- A) Kalitate haundikoak izan dira urriak izan arren.
- B) Bakar batzu ezik gainontzekoak ez dute balio haundirik izan.
- C) Eskuko hatzekin aise zenbatzeko modukoa izan da liburu berrien kopurua.

7.- Bertsolaritza indartuz doala esateko zeintzu dira aipatzen diren arrazoi nagusienak ?

- A) Txapelketetara hurbildu den jendetza , bertsolari gazteen maila , eta Bertsolari aldizkaria.
- B) Bertsolari egunaren arrakasta, Bertsolari aldizkariaren plazaratzea eta Bertsolari Txapelketa.
- C) Omenaldiak , " Hitzetik hortzera " telesaioaren arrakasta eta E . H . ko bertsolari txapelketa.

8.- Euskal musika heldutuz doala esateko, zer argudio erabiltzen du?

- A) Zigilu berrien agerpena eta talde berri ugarien lehen grabaketak.
- B) Salmenten biderkatzea eta disketxe berrien agerpena.
- C) Musika estiloen ugaritzea eta maketa lehiaketako partaidetza.

9.- Nork ekin dio 2. aldiz?

- A) Delirium Tremens taldeak.
- B) Inork ez.
- C) Xabier Letek.

10.- Trikitixa txapelketan, zein eztabaida piztu zen berriro?

- A) Trikitixa berria eta tradizionalaren arteko polemika.
- B) Txapelketan parte hartzeko baldintzetaz.
- C) Epaitzeko erabilitako zorrotasunaz.

11.- 91an Eskenatokia laga dutenen artean ezin ahaztu...

- A) Su Ta Gar.
- B) Kortatu.
- C) Delirium Tremens..

12.- Nork antolatu zuen 91.ko maketa txapelketarik garrantzitsuena?

- A) E. T. B.k
- B) Euskadiko talde berrien kordinakundeak.
- C) Euskadi Gazteak.

13.- Noiz erabiliko zenuke esaera hau? Batek daki nora joan den!

- A) Norbait galdu egin denean.
- B) Batek bakarrik dakienean nora joan den.
- C) Inork ez dakienean nora joan den.
- D) Esaten duenak, ez dakienean nora joan den.

14.- Lo eta lo besterik ez duzu egiten:

- A) Jaiki zaitez! lanera joan behar duzula.
- B) Altxa zaitez! lanera joan behar duzun.
- C) Jaiki zaitez! lanera joan behar duzu.
- D) Jaiki zaitez! lanera joan behar duzu eta.

15.- Atzeak erakusten du aurrera nola dantzatu. Zer esan nahi du aurreko esaldiak?

- A) Dantzan ikasteko aurrera baino, atzera begiratu behar dela.
- B) Iraganak irakasten digula etorkizunean izan beharreko jokabidea.
- C) Ezer egin baino lehen, aurretik zer gertatu den jakin behar dugula.
- D) Atzekoak nola dantzatu aurrekoak hala egin.

16.- Behi antzuen errapeetatik zenbat esne atereak garen Jainkoak daki...

- A) eta justu justu!
- B) gu ezik!
- C) eta hark ere kostata!
- D) eta kostatu!

17.- Ikusten ez ezin minik eman.

- A) duzuna.
- B) duzulako.
- C) duzunak.
- D) baduzu.

18.- Hotz handia dagoela adierazteko:

- A) Hotz bat egiten du!
- B) Hotz asko dago!
- C) Demaseko hotza egiten du!
- D) Zelako hotza dago!

19.- Bi pertsona elkarrekin bizi direla adierazteko:

- A) Etxe batean bizi gara.
- B) Biok batera bizi gara.
- C) Elkar bizi dugu.
- D) Etxe berean bizi gara.

20.- Noiz erabiliko zenuke ondorengo esaldia? Tripa zorriak ere egin zaizkit jadanik!

- A) Aspaldian gauza goxorik jan barik gaudenean.
- B) Goizean goiz jaikitzerakoan.
- C) Gose garenean.
- D) Bazkaldu barik geldituz gero.

21.- Nire anaiak berarekin zinera joango ote nintzen galdetu zidan?

- A) Zer, bazatoz zinera?
- B) Ba, al zatoz zinera?
- C) Zinera zatoz?
- D) Zinera zoaz?

22.- Lagun bat hamar urtez preso egon dela esateko:

- A) Preso bezela egon da 10 urtez.
- B) Preso izan da 10 urtez.
- C) Presotzat hartu zuten 10 urtez.
- D) Preso eraman zuten duela 10 urte.

23.- Poliziak, errore baten ondoren atxilotu zuen:

- A) Gaizkiletzat jo zuen.
- B) Lapur zela pentsatu zuen.
- C) Lapurra moduan hartu zuen.
- D) Beste norbaitetzat konfunditu zuen.

24.- Baliorik ez duen gauza bati buruz esaten da:

- A) Hori euli kaka dok!
- B) Balizko errotan irinik ez.
- C) Oso gutxi balio du!
- D) Gatz bakoa da!

25.- Aspaldi bizi naiz esklabu.

- A) hauetan.
- B) honetan.
- C) haietan.
- D) horretan.

26.- Zure laguntzagatik zor mila esker.

- A) dut.
- B) dizkizut.
- C) dizut.
- D) dauzkat.

27.- Gogorik izanez gero eramango zaituztet. Parekoa aukeratu.

- A) Gogorik izanda eraman zaitzaketet.
- B) Gogorik izango banu eramango zaituztet.
- C) Gogorik banago eraman zaitzakete.
- D) Gogorik izango banu eramango zintuzketet.

28.- Etxeko arazoak etxean konpondu behar ditugula adierazteko:

- A) Ezkonteguna, aise izanaren biharamuna.
- B) Etxean otso kanpoan uso.
- C) Kanpoan uso etxean bele.
- D) Etxeko sua etxeko hautsez estal.

29.- Mexiko hiriko kutsaduraren ondorioz makina bat umek izango du:

- A) Okerrik.
- B) Gaisotasunik.
- C) Gaitzak.
- D) Ezbeharrak.

30.- Zer dago gaizki esaldi honetan? Erregeak ezin izan du gau osoan lorik egin, minez bait zegoen eta.

- A) Ezinen orde ez ipini behar da.
- B) Bait soberan dago.
- C) Bait edo eta, bietako bat soberan dago.
- D) Lorik jarri orde lo ipini behar da.

31.- Euskal gorantz doa eten gabe.

- A) diskakuntza.
- B) diskakundea.
- C) diskagintza.
- D) diskaketa.

32.- Urteak pasa arren ez zaio igartzen. Aukeratu baliokidea.

- A) Nahiz eta urteak pasa ez zaio nabaritzen.
- B) Denbora pasatu arren berdin dago.
- C) Urte asko eduki arren ez da aldatu.
- D) Nahiz eta urte asko izan ondo dago.

33.- Norbaitek egin beharko du, ezta?

- A) Nik neu egingo dut.
- B) Neronek.
- C) Neuk.
- D) Neronek egingo dut.

34.- Non ote daude Argentinako desagertuak?

- A) Bertan galdetu.
- B) Ezin asmatu.
- C) Baneki.
- D) Baten batek jakingo du ondo!

35.- Espainiako gobernuak eta Frantziakoak, dute azken hitza.

- A) nola ezetz
- B) maila berdina
- C) hein handi batean
- D) jakina izanik

36.- Joango al gara Jamaikara?

- A) Noski ba!
- B) Baiba!
- C) Jakina!
- D) Ni bai, banoa.

37.- Zein da zuzena?

- A) Guzti hau, noski jendea nahasi eta aldrebesteko besterik ez da.
- B) Gusti hau, nozki, jendea naasi eta aldrebesteko besterik ez da.
- C) Guzti hau, noski, gendea naasi eta aldrebezteko besterik ez da.
- D) Gusti hau, noski, gendea nahase eta aldrebezteko besterik ez da.

38.- Langabezia dela eta, herri bakoitza bere aterabidea saiatzen da.

- A) antzematen
- B) hatzematen
- C) aurre-ematen
- D) somatzen

39.- Zurrumurru hori herrian zabaldu da.

- A) ahoz aho
- B) ahoz
- C) tabernatik tabernara
- D) barra-barra

40.- Gure konpromezua apurtezina da.

- A) herriarekin
- B) herriarengan
- C) herriagan
- D) herriarekiko

41.- 320 kilotakoa sei aldiz altxatu ondoren 330 kilotakoa 3tan altxatu zuen.

- A) Hori bai hori!
- B) Aze suertea hori!
- C) Ez da makala!
- D) Halako gero!

42.- Amerikarren partehartzea Golkoko gudan:

- A) Hala nolakoa izan zen.
- B) Duda izpirik gabekoa izan zen.
- C) Erabakitzaila izan zen.
- D) Erabakiorra izan zen.

43.- Neskekin ez dut nola ...

- A) asmatu A) jolastu
- B) inoiz asma B) sartu
- C) inoiz jakin C) jokatu
- D) jaikin D) elkartu

44.- Izugarrizko lainoa sartu zen eta nik, ...

- A) ez nekien nora jo.
- B) ez nuen jakin nola irten.
- C) galduta nenbilen.
- D) galduta nengoen.

45.- Gizonaren bihotza emakumearena baino da.

- A) hauskaitza
- B) apurterraza
- C) hauskorragoa
- D) gogortsuago

46.- Gure arbasoek eguzkia zuten.

- A) jainkoa
- B) jainkosa
- C) jainkotzat
- D) jainko modura

47.- Zein da zuzena?

- A) Nork-nori? Zartagion zaharrak pertsari utikan: belts hori!
- B) Nor-nori? Sartagin zaharrak pertzaei:utikan beltz hori!
- C) Nork-nori? Zartagin zaharrak pertzari: utikan beltz hori!
- D) Nor-nori? Sartagin zarrak pertzari: utikan beltz hori!

48.- Udaltzainak multarik jarri ez hobe dugu ondo aparkatzea.

- A) dezaion
- B) diezagun
- C) digun
- D) dezagun

49.- Begiz jota daukat neska beltzaran hura. Zer esan nahi dut?

- A) Ezin dudala ikusi.
- B) Nere gustokoa dela.
- C) Egunero ikusten dudala.
- D) Ez diodala beste inori begiratzen.

50.- Norbait besteen kontura bizi denean:

- A) Bere kontura ez da bizi.
- B) Ez dauka lanik eta.
- C) Zer egingo du ba?
- D) Inoren lepotik bizi da.

51.- Azken azterketa gainditzeko 500 orrialdeko liburu buruz ikusi behar.

-) Ioditzar
- B) Ioditxo
- C) Ioditsu
- D) Iodikotea

52.- Hizlariak honelaxe hasi zuen bere hitzaldia:

-) Bazkideok, arratsaldeon denoi...
- B) Eta hau horrela balitz...
- C) Hona hemen zuekin...
- D) Besterik gabe hasiera emango diogu...

53.- Eztandaren ondorioz hiru pertsona larriki izan dira.

-) zauritutak
- B) jota
- C) zaurituta
- D) zaurituak

54.- Ordena itzazu animalia hauek handienetik txikienera:

- A) Hartza, oreina, saguzarra, otsoa
- B) Oreina, hartza, otsoa, saguzarra
- C) Hartza, oreina, otsoa, saguzarra
- D) Otsoa, hartza, oreina, saguzarra

55.- Erdi Europa osoa zeharkatu zuten.

- A) garaian A) izurriak
- B) aroan B) gaisotasunek
- C) sasoiari C) gaiztakeriek
- D) denboran D) izurriteek

56.- Zuhaitz hauen artean zuhaixka bat dago, azpimarra ezazu zein den.

- A) Ipurua.
- B) Lizarra.
- C) Haritza.
- D) Urkia.

57.- Espainiar konstituzioari Euskal Herriko ezetz esan zion.

- A) hautesleak
- B) biztanleak
- C) hauteslegoak
- D) hauteskundeak

58.- Neri, Errioxako ardoa gustatzen zait.

- A) asko
- B) oso
- C) batez ere
- D) berriz

59.- Gaur edan ardoa ez zen nolana hikoia.

- A) dugu
- B) dugula
- C) duguna
- D) dugun

60.- Darwinen teoriaren defendatzaileak,

- A) asmatu dute.
- B) ondo ari dira.
- C) zuzen dabilta.
- D) arrazoia dute.

61.- Kultura sailak, museo erraldoia eraikitzen hainbeste diru gastatu beharrean, hobe euskalduntzeari zertxobait gehiago eskaintzea.

- A) zuen
- B) lirateke
- C) litzateke
- D) zukeen

62.- Okela hau ez da batere...

- A) samurra
- B) gogortsua
- C) biguna
- D) gardena

63.- Ez dizut irakurriko.

- A) beste bider
- B) beste aldiz
- C) berriro
- D) behin bat

64.- Hobe duzu etxeko lanak egitea.

- A) aldez aurretik
- B) bitartean
- C) lehen
- D) behin betirako

65.- Ez pentsa, ezagutzen ez duzuna hobe izango ...!

- A) dela
- B) da
- C) den
- D) denik

66.- Aurki ezazu beheko hitzetan, behin edo behin, hitzaren sinonimoa.

- A) Honez gero.
- B) Behin berriz.
- C) Noizean behin.
- D) Harrez gero.

67.- Gure lagunak komisaldegi barruan loturik....

- A) dago.
- B) dute.
- C) daukate.
- D) dauzkate.

68.- Biharko..... ona iragarrita dago.

- A) denbora
- B) denboraldi
- C) egun
- D) eguraldi

69.- Ordena itzazu kronologikoki historioaren zati hauek, zaharrenetik hasita.

- A) Aro Berria, Erdi Aroa, Burdin Aroa, Harri Aroa.
- B) Harri Aroa, Aro Berria, Burdin Aroa, Erdi Aroa.
- C) Burdin Aroa, Harri Aroa, Erdi Aroa, Aro Berria.
- D) Harri Aroa, Burdin Aroa, Erdi Aroa, Aro Berria.

70.- Asteburu honetan ez daukat ezertarako ...

- A) astirik.
- B) modurik.
- C) unerik.
- D) aisialdirik.

71.- Asto joan eta mando etorri. Zer esan nahi du?

- A) Astoa mando bihurtu dela.
- B) Joandako antzera itzuli dela.
- C) Askoz hobeto itzuli dela.
- D) Harrotuta etorri dela.

72.- ... bizi da gure alaba horrekin ezkonduz geroztik.

- A) Esnetan
- B) Tokitan
- C) Esne mamitan
- D) Zorionean

73.- Zein da zuzena?

- A) Sobiet Batasunetik sortutako estatu independenteek elkar egin dute.
- B) Sobiet Batasunetik sortutako estatu independenteak egin dira.
- C) Sobiet Batasunetik sortutako estatu independenteek elkarrekin bat egin diras.
- D) Sobiet Batasunetik sortutako estatu independenteek bat egin dute.

74.- Lagun horiek izakeran elkarren antzekoak dira.

- A) Berdintsuki dira.
- B) Beretsuak dira.
- C) Ore bateko opilak dira.
- D) Batuak bizi dira.

75.- Ondo ustean egin nuen egin nuena. Aukeratu baliokidea.

- A) Ondo pentsatuta egin nuen egin nuena.
- B) Sinistuta egin nuen egin nuena.
- C) Fede onez egin nuen egin nuena.
- D) Ondo erabaki nuen egindakoa.

76.- Irtetzen den gehienetan mozkortzen da.

- A) Beti mozkortzen da.
- B) Hirutik bitan mozkortzen da.
- C) Aldi oro mozkortzen da.
- D) Aspaldian sarritan mozkortzen da.

77.- Geure kanpina eta zuena bata bestetik oso gertu daude.

- A) Bertan daude.
- B) Oso hurbila daude.
- C) Ondoan daude.
- D) Bertatik bertara daude.

78.- Banengoen ba hori horrela ezin izan.

- A) zitekeela
- B) litekeela
- C) daitekeela
- D) dezakeela

79.- Ez duzula oporretarako dirurik?

- A) Lan egin besteak bezala.
- B) Lan eginda lortzen da.
- C) Lan egin barik, ezin da.
- D) Lan egitea zenuen besteak bezala.

80.- Zein da zuzena?

- A) Kazkabarra hain ahula izanik nekez zurituko ditu bazterrak.
- B) Kaxkabarra ahin haula izanik nekez zurituko ditu basterrak.
- C) Kazkabarra hain haula izanik nekez zurituko ditu basterrak.
- D) Kaskabarra ahin ahula izanik nekez zurituko ditu bazterrak.

81.- Harriak ez dio minik emango haritz sendo zailduari, bai, landare gazte bigunari.

- A) ordez
- B) ordea
- C) bestela
- D) horrela

82.- Gure amama telebista aurrean dagoen guztietan:

- A) Lokartzen du.
- B) Lo egiten dago.
- C) Loak hartzen du.
- D) Lotan egiten du.

83.- Hemen agertutako galdera guztiak arazo barik erantzun guk

- A) liteket.
- B) daitekez.
- C) ditzakegu.
- D) ditzake.

84.- Gaur goizean egindako inork ez du ezer eraman.

- A) pujatan
- B) azterketan
- C) enkantean
- D) aukeran

85.- Zein fruitu ematen du arteak?

- A) Mizpila.
- B) Gaztaina.
- C) Urra.
- D) Ezkurra.

86.- Euskara ikasteko gogoa garrantzitsua da denbora izatea.

- A) beste
- B) adina
- C) bezain
- D) bezala

87.- Zein da zuzena?

- A. -Asturiasko mehatzariak borrokan segituko dutela iragarri zuten atzo.
- B) Asturiasko meatzariak borrokan segituko dutela iragarri zuten atzo.
- C) Asturiasko meatzariak borrokan segituko dutela iragarri zuten atzo.
- D) Asturiaseko mehatzariak borrokan segituko dutela iragarri zuten atzo.

88.- Nola esaten da norbaitek zerbaiten ardura hartzen duenean:

- A) Berea gainean hartu du.
- B) Berea da hori.
- C) Berarena da.
- D) Bere gain hartu du.

89.- Greban kamioilari autonomoek ez dute segituko.

- A) baina.
- B) bakarrik.
- C) soilik.
- D) baino.

90.- Joxe Miel Barandiarani beroa eskaini zioten Ataunen.

- A) hileta
- B) elizkizuna
- C) omenaldi
- D) omen

91.- Bushi Golkoko guda irabazteak “ordenu berriko” aita bilakatzea dio.

- A) ahalbideratu.
- B) aukera eman.
- C) ahalegindu.
- D) opatu.

92.- Nola esango zenuke norbaitek huts egiten duenean?

- A) A ze txarra!
- B) Ze gaizki!
- C) A ze nolako hankasartzea!
- D) Hau okerra galanta!

93.- Politika inori interesatuko ez mundua desberdina izango ...

- A) balio A) lirateke
- B) balitzaie B) litzaioke
- C) balitzaio C) litzateke
- D) balitzaio D) zitekeen

94.- Gaurko greba deialdia utzi dute.

- A) bertan behera
- B) berehala
- C) horretan
- D) horrela

95.- Nola deitzen zaio jokorako zaletasun handia duen pertsonari?

- A) Jokotzaile sutsua.
- B) Jokolari trebea.
- C) Oso jokazalea.
- D) Jokozale amorratua.

96.- Lege proiektua atzera botatzeko sartu zuten Parlamentuan.

- A) eskabidea
- B) eskaintza
- C) agiria
- D) papera

97.-Dena gaizki dagoela iruditzen zaio, oso pertsona da.

- A) zitala
- B) ezkorra
- C) erabakiorra
- D) aldrebesa

98.- HABEkoaren aldean AEKren aurrekontua hutsala da. Aukeratu baliokidea.

- A) HABEkoarekin konparatuz gero AEKren aurrekontua ez da zer bait.
- B) HABE eta AEKren aurrekontuak antzekoak dira.
- C) HABEren aurrekontua AEKkoarena baino askoz handiagoa da.
- D) AEKren aurrekontua HABEkoarekin alderatuz gero oso txikia da.

99.- ... nahi ez duenak aditu, soka ez du behar higitu!

- A) Zarata
- B) Gauza txarrik
- C) Ezkila
- D) Soinu

100.- Zer esan nahi du aurreko atsotitzak?

- A) Kanpaina ez entzuteko hobe dela soka ez ikutzea.
- B) Erantzun txarrik jaso nahi ez baduzu ez zirikatzeke.
- C) Kalte egiten diguten gauzei buruz hobe dela ez hitzegitea.
- D) Ez sufritzeko hobe dela ezer ez egitea.

ERANTZUNAK

1.- C	2.- C	3.- B	4.-B
5.- A	6.- C	7.- B	8.- A
9.- C	10.- A	11.- C	12.- C
13.- D	14.- D	15.- B	16.- C
17.- C	18.- C	19.- D	20.- C
21.- B	22.- B	23.- A	24.- A
25.- B	26.- C	27.- D	28.- D
29.- B	30.- C	31.- C	32.- A
33.- D	34.- D	35.- C	36.- C
37.- A	38.- B	39.- A	40.- D
41.- C	42.- D	43.- C	44.- A
45.- C	46.- C	47.- C	48.- B
49.- B	50.- D	51.- D	52.- D
53.- D	54.- C	55.- B	56.- A
57.- C	58.- C	59.- D	60.- C
61.- D	62.- A	63.- C	64.- A
65.- D	66.- C	67.- D	68.- D
69.- D	70.- A	71.- B	72.- C
73.- D	74.- C	75.- C	76.- B
77.- D	78.- A	79.- D	80.- A
81.- B	82.- C	83.- C	84.- C
85.- D	86.- C	87.- B	88.- D
89.- D	90.- C	91.- A	92.- C
93.- C	94.- A	95.- D	96.- A
97.- B	98.- D	99.- C	100.-B

TELEBISTA ESKOLAREN ETSAI?

Nekea eta bortxakeria.

Inkestak bildutako erantzunen arabera, haur frantsesen %86ak ikusten du telebista eta eskolan (900 ordu) baino denbora gehiago ematen dute pantailaren aurrean (1.450 ordu). Berandu lotaratzeak nekea metatzen du eta zentzu honetan telebistak kalte egiten dio eskolako lanari, irakurketari ikasketari batipat. Baina ezaguera eta informazio ugari modu atseginez eskaintzen dituen neurrian, ahozko eta usadiozko irakaskuntzaren aspergarritasuna gainditzen laguntzen du.

Nekearen ondoren bortxakeriaren arazoa dator. Amerikarrek buruturiko estudio baten arabera, 115 filmetan 406 krimen agertzen ziren: eguneroko bizitzan baino hogeitaz gehiago agertzen dela krimena pantailan aitortzen zuten. Zer eratako eragina du bortxakeriaren ikus-kizunak haurraren gainean?

Hiru ustekizun daude:

- a) Telebista ikustearen eta delinkuentziaren artean ez da aurkitzen loturarik.
- b) Telebistak ondorio lasaigarri edo "katartikoa" du (Haurren psikologian espezialista ezaguna den B. Bettelheimen iritzia).
- c) Bortxakeriak ikusteak bortxakeria burutzera bultzatzen du.

Nolanahi ere, famili arazo bat da ezer baino lehen eta alde handiak daude familiek bere seme-alabei eskaintzen dizkieten jarraibide eta aukeren artean. Oro har, ikasketa-maila apalenak dituzten gurasoek uzten diete askatasunik handiena bere haurrei telebista ikusteari dagokionean.

Dekulturizazioaren arazoa.

Gaur egun nabarmen ikusten da eskolaren hitz-altxor edo hiztegiaren maila pobretzen ari dela. Zenbaiten ustez, telebistari egotzi behar zaio pobretze honen errua, irakurketan pasa beharko denbora murriztera jotzen duen neurrian, izan ere hiztegia batez ere irakurketaren bidez eskuratzen bait da.

Bestalde, inkestek aski garbi uzten dute, eskolako emaitzak telebistaren aurrean igarotako orduen alderantzizko proportzioan agertzen direla. Puntu honetan gogor erasotzen dio telebistari aipaturiko Bruno Bettelheimek: "Telebista sinestertzatzen dio haurrari bere arazo guztien soluzio erraz bat dagoela edo egon behar duela. Hau gertatzen ez denez gero, haurrak asegabe bihurtzen dira beren buruarekiko eta gizartearekiko. Inoren baitan uzten dute beren burua eta erraz murgil daitezke drogan.

Adituen iritziak.

"Garai batean eskolak ikasleari %80a ematen bazion, gaur egun huts egiteko arriskurik gabe esan liteke, proportzioa alderantzikatu egin dela, ezagueraren %20a bakarrik jasotzen duela eskolatik"(Jean Cluzel senadorea).

“Koska handia dago ez bakarrik eskola eta telebistaren artean, baita eskola eta lan-munduan ere”(Robert Ballion).

“Joan behar duelako joaten da haurra eskolara; alderantziz, bere gogoz ikusten du telebista. Telebista da lehen bitarteko serioa-agian-eskola-sistema esklerosatu bat desegiteko. Telebista berbalismoari kontrajartzen zaio, demostrazioaren mesedetan”.(Judith Lazar).”

“Telebista gure ingurunearen parte da eta ameskeria bat izango litzateke desagertetzen saiatzea. Hartaz baliatzen ikastea da kontua. Gaur ez al da telebista ikusten ikastea irakurtzen ikastea bezain garrantzizko?” (Guy Vermeil).

“Noizko imajinaren gramatika? Eskolari dagokio telebistaren ondorio kaltegarriak zuzentzea. Gauza bakoitza bere lekuan jartzen irakatsi behar du eskolak”.(Jean Cazeneuve).

Ukaezina da gero eta gehiago estutu beharrekoa dela telebista eta eskolaren arteko lokarria eta dagoeneko irakasle asko hasita dago honelako eta halako telesaioak gomendatzen. Horretaz gainera, ezinbestekoa da pantailatik jasotako informazio “hauskor” hori era akademiakoago batez aztertu, sakondu eta osatzea. Elkarri bizkarra emanez ez, baizik eta aurrez-aurre bata besteari begira jarri beharra dauzkagu bi kultur-tresna hauek. Telebistak, eskolak eta gizarte osoak du hitza.

Honako 12 galdera hauek textuari buruzkoak dira.

1.- Inkestak bildutako erantzunen arabera,

- A) Haur frantsesen %86ak 1.450 orduatik 900 eskolan ematen ditu eta gainontzekoak pantailaren aurrean.
- B) Berandu lotaratzeak nekea metatzen du eta ondorioz ohizko irakaskuntza, irakurketa batez ere, aspergarria egiten zaio umeari.
- C) Telebista mesedegarria izan daiteke irakaskuntzarako.

2.- Bortxakeriari dagokionez,

- A) Amerikarrek 406 pelikula burutu bazituzten, 115 krimenei buruzkoak izan ziren.
- B) Eguneroko bizi-tzan baino hogeit hamar krimen gehiago azaltzen dira pantailan.
- C) Pelikuletako giroa kalekoa baino bortitzagoa da.

3.- Zein ez da azaltzen aipaturiko iritzietan?

- A) Telebistan bortxakeria ikustearen eta delinkuentziaren artean ez dago loturarik.
- B) Telebista ikusteak ez du zerikusirik delinkuentziarekin.
- C) Bortxakeria ikusteak bortxakeria dakar.

4.- Telebista ikusteari dagokionez,

- A) Telebista ikusteak arazoak sortzen ditu familietan.
- B) Ikasketa maila apaleko gurasoen seme-alabek, oro har, askatasun haundiagoa izaten dute ikusi nahi duten saioa aukeratzeko.
- C) Ikasketa maila apaleko guraso guztiek ikasketak dituztenek baino askatasun haundiagoa uzten diete seme-alabei.

5.- Telebista dela eta,

- A) Ikasleen hiztegi-maila gero eta txiroagoa da.
- B) Ikasleek irakurketan pasa beharreko denbora telebista aurrean ematen dute, eta ondorioz berauen hiztegi-maila gero eta oparoagoa da.
- C) Ikasleen hiztegi-maila murriztu egin da, irakurketaren bidez baino ez bait dute eskuratzen hiztegia.

6.- Bruno Bettelheimek dioenez,

- A) Inkestek garbi uzten dute irakaskuntzaren emaitzak nahiko txarrak direla.
- B) Eskola eta telebista elkarren aurka dabilta.
- C) Telebistaren eraginez, umeak arazoak aise konpon daitezkeela uste du.

7.- Telebistak haurrari sinestarazten diona gertatzen ez denez gero,

- A) Haurra asegabe bilakatzen da gizartearekiko eta bere buruaz beste egiten du.
- B) Inoren ardurapean uzten du bere burua umeak.
- C) Umeek erraz ekidin dezakete droga.

8.- Bruno Bettelheimenen ustez,

- A) Telebista kaltegarria da edonorentzat.
- B) Drogazaleak telebistaren menpe daude.
- C) Telebistak eragin handia du umearengan.

9.- Adituen iritziz,

- A) Garai bateko eskolak gaur egunekoak baino arrisku haundiagoa zuen huts egiteko.
- B) Gaur egungo umeek ezagupenaren laurdena baino ez dute jasotzen eskolatik.
- C) Eskola, telebista eta lan-mundua oso loturik daude.

10.- Hauetariko zein ez dute aipatu adituek?

- A) Haurrak telebista ez du ikusten ikusi behar duelako, gogoz baizik.
- B) Kontua ez da telebista desagertarazten saiatzea, telebistaz baliatzen ikastea baino.
- C) Telebista ikusten ahalegintzea, irakurtzen ikastea bezain garrantzitsua da.

11.-Artikuluaren arabera,

- A) Eskolari dagokio umei txukunak izaten irakastea, hots, gauza bakoitza bere lekuan jartzen irakastea.
- B) Argi dago eskola eta telebista elkarren arerio direla eta horretan saiatu behar direla.
- C) Makina bat irakaslek ekin dio jadanik aholkatze-lanari.

12.- Eskola eta telebista,

- A) Bizkarra ezeze, aurrea ematen ere jarri behar ditugu.
- B) Aurrez-aurre jarri behar ditugu gizarte osoan hitza izan dezaten.
- C) Estutu beharrean gaude bi kultur-tresna hauen arteko lokarria.

13.- Joan zen egunean Donostian izan ginen. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Aspalditxo batean Donostian izan ginen.
- B) Beste egunean Donostian izan ginen.
- C) Lehengo egunean Donostian izan ginen.
- D) Lehenengo egunean Donostian izan ginen.

14.- Mireni gertatutakoa dabil.

- A) mara-mara
- B) bolo-bolo
- C) marmarka
- D) itsumutuan

15.- Zein da zuzena?

- A) Bart gure auzoko ezkonberriak erail dituzte.
- B) Bart gure hauzoko ezkonberriak erahil dituzte.
- C) Bart gure auzoko eskonberriak erail dituzte.
- D) Bart gure auzoko ezkonberriak erahil dituzte.

16.- Mahai gainean laga dituen joan da.

- A) txanponen bila
- B) txanpon bila
- C) txanponaren bila
- D) txanponetara

17.- Zein egoeratan erabiliko zenuke esaera hau?. "Horrek ez du ez josirik ez urraturik".

- A) Txukun-txukun ibiltzen dela adierazteko.
- B) Behartsua dela azaltzeko.
- C) Ganorabakoa dela azaltzeko.
- D) Gazteegia dela adierazteko.

18.- Bakoitzak zortzi mila pezeta ekarri zuela adierazteko, zein erabiliko zenuke?

- A) Zortzina mila pezeta ekarri zituen.
- B) Zortzi bana mila pezeta ekarri zuten.
- C) Zortzi milana pezeta ekarri zuten.
- D) Zortzi mila pezetana ekarri zuten.

19.- Gure herriko jator-jatorra da.

- A) gaztaroa
- B) gazteria
- C) gaztetasuna
- D) gaztetsua

20.- Egarriak jota bazeunde, hauetariko zein aukeratuko zenuke?

- A) Ur baso bat edango nuke.
- B) Ur gainezka dagoen baso haundi bat aukeratuko nuke.
- C) Baso bat ur hartuko nuke.
- D) Ur edalontzi bat hartuko nuke.

21.- Zer dago txarto esaldi honetan?. "Itziazrek eta Irunek ez dakit, baina nik neuk horrelako ariketarik ez dut inoiz ibili".

- A) Neuk soberan dago.
- B) Ezer ez.
- C) Ibili.
- D) Dut jarri beharrean ditut jarri behar da.

22.- Antza denez, lakik erretzeari utzi dio. Aukera ezazu baliokidea.

- A) lakik erretzeari utzi ohi dio.
- B) lakik erretzeari utzi bide dio.
- C) Dirudi lakik erretzeari utzi diola.
- D) lakik erretzeari utzi omen diola.

23.- Mahaitik jaiki eta kalera joango ginen galdetu nien:

- A) Goaz kalera?
- B) Joaten gara kalera?
- C) Joango gara kalera?
- D) Joan gaitezen kalera!

24.- Musutruk eman zioten. Zein da honen sinonimoa?

- A) Doi-doi eman zioten.
- B) Dohain eman zioten.
- C) Musuak eman zizkieten elkarri.
- D) Alferrik eman zioten.

25.- Zein da zuzena?

- A) Astelehenak 16, bilera izango dugu.
- B) Astelehenean, hilaren 16, bilera izango dugu.
- C) Astelehenean, hilak 16, bilera izango dugu.
- D) Astelehena, hilaren 16a, bilera izango dugu.

26.- Irakasleak ariketa batzuk eman zizkien ikasleei etxean egin zitzaten, baina hurrengo egunean irakasleari ahaztu egin zitzaion...

- A) etxeko lana zuzentzea.
- B) etxerako lana zuzentzea.
- C) etxeko ariketak zuzendu.
- D) etxerako ariketak zuzendu.

27.- Inori kontatzekotan, Edurneri kontatuko nioke. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Inori kontatu ez banion ere, Edurneri kontatuko nioke.
- B) Inori kontatu ez balio, Edurneri kontatuko nioke.
- C) Inori kontatu beharko banio, Edurneri kontatuko nioke.
- D) Inori kontatu behar izan banio, Edurneri kontatuko nion.

28.- Nola esaten zaio zorrozten ibiltzen denari?

- A) Zorroztailea.
- B) Zorrozkiloa.
- C) Zorrozgilea.
- D) Zorroztea.

29.- Oraingo honetan asmatuko nuen ezta?

- A) Ba ez!
- B) Ez ba!
- C) Ezta oraingo honetan ere ez!
- D) Oraingo honetan ere bai huts egin duzu!

30.- Gaisorik esan zidaten eta bisitatzera joan nintzaien.

- A) zeundela
- B) hengoela
- C) zeudela
- D) zegoela

31.- Aizu!, ikusi al dituzu nire lagunak?

- A) Bai, Juanitorengan daude.
- B) Bai, Juanitorenean daude.
- C) Bai, Juaniton tabernan daude.
- D) Bai, taberna Juaniton daude.

32.- Ikusi dugun pelikula ...

- A) ez zait ezer ere gustatu.
- B) ez zait ezer gustatu.
- C) ez zait batere gustatu.
- D) ez zait bat ere ez gustatu.

33.- Erraz-erraz salduko dela adierazteko, zein erabiliko zenuke?

- A) Erroskilak bezala salduko da.
- B) Txurroak bezala salduko da.
- C) Txurroen moduan salduko da.
- D) Egin ahala salduko da.

34.- Zein da zuzena?

- A) Aztirik izango bagenu, ormetako argazkiak azalduko genituzke.
- B) Astirik izango bagenu, ormetako argaskiak aldatuko genituzke.
- C) Aztirik izango bagenu, hormetako argazkiak aldatuko genituzke.
- D) Astirik izango bagenu, ormetako argazkiak aldatuko genituzke.

35.- Zein erabiliko zenuke zure iritzia azaltzeko?

- A) Neretzako, ez dugu behar bezala jokatu.
- B) Niretzat, ez dugu behar bezala jokatu.
- C) Nire ustez, ez dugula behar bezala jokatu.
- D) Nire iritziz, ez dugu behar bezala jokatu.

36.- Atzoko lasterketan

- A) Lehenengoak bigarrenari bi minututako abantaila atera zion.
- B) Lehenengoak bigarrenari bi minuturen aldea kendu zion.
- C) Lehenengoak bigarrenari bi minutuko abantaila atera zizkion.
- D) Lehenengoak bigarrenari bi minutuko abantaila atera zion.

37.- Bere burua besterik ez du horrek. Zer esan nahi du?

- A) Ez du seme-alabarik.
- B) Berekoia da.
- C) Baikorra da.
- D) Ez du ez seme-alabarik ez lagunik.

38.- Zein da zuzena?

- A) Umeen %60 euskaraz hitz egiten du.
- B) Umeen %60ak euskaraz hitz egiten dute.
- C) Umeen %60ak euskaraz hitz egiten du.
- D) Umeen %60ek euskaraz hitz egiten dute.

39.- Zeuk esan didazulako etorri naiz. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Zeuk esanda etorri naiz.
- B) Zeren eta zeuk esan didazu etorri naizen.
- C) Zeuk esateagatik etorri naiz.
- D) Etorri naiz zeren eta esan bait didazu.

40.- Zein da zuzena?

- A) Arkatz honek larogei eta hemezortzi pezeta balio du.
- B) Arkatz honek larogeitamazortzi pezeta balio du.
- C) Arkatz honek laroitamezortzi pezeta balio du.
- D) Arkatz honek larogei ta hamazortzi pezeta baliodu.

41.- Elurra mara-mara ziharduen eta honako hau esan zioten:

- A) Hobe duzu bertan gelditzea.
- B) Hobeto duzu bertan gelditzea.
- C) Hobe da bertan gelditzea.
- D) Hobeagoa da bertan gelditzea.

42.- A! ze parea karakola eta barea!. Aukera ezazu baliokidea.

- A) A ze bi, hi eta ni!
- B) Egon hadi lo eta jango dek me!
- C) Astoak mandoari, belarriluze!
- D) Astoren astoa goseak hil.

43.- Hiru aldiz izan naiz zure herrian eta gertatu zait zerbait.

- A) hiruetan
- B) hirutan
- C) hiruretan
- D) hiruan

44.- Gerra ostean gorriak ikusi genituen. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Gerra ostean txapel-gorriak ikusi genituen.
- B) Gerra ostean odol ugari ikusi genituen.
- C) Gerra oste latza izan genuen.
- D) Gerra ostean mikeleteak ikusi genituen.

45.- Nik neuk ere gonbidatu kafetxo bana hartzera.

- A) nizuen
- B) nintzaizuen
- C) ninduzuen
- D) zintuztedan

46.- Zer esango diezu lanerako gogorik ez duten ikasleei?

- A) Alfer batzuk zarete!
- B) Alferkeriaz beteta zaudete!
- C) Alfer galantok!
- D) Zein alferrak zarete!

47.- Erditzear dagoenari laguntzea lanbidetzat duen emakumeari deritzogu.

- A) amagaia
- B) emagina
- C) emagaldua
- D) amaginarreba

48.- Karmelek esan duena den-denek entzun dute. Aukeratu baliokidea.

- A) Ez dago Karmelek esan duena entzun ez duenik.
- B) Ez dago inor Karmelek esan duena entzun ez duela.
- C) Ez dago Karmelek esan duena entzun duenik.
- D) Badago Karmelek esan duena entzun ez duenik.

49.- Zein da zuzena?

- A) Askotan galdetzen naiz zergatik egin ote didaten hori.
- B) Askotan galdetzen diot nire buruari zergatik egin ote didaten hori.
- C) Askotan galdetzen zaio buruari zergatik egin ote didaten hori.
- D) Askotan galdetzen diot neure buruari zergatik egin ote didaten hori.

50.- autobusak irtengo dira.

- A) Donostirako A) Ermuatik
- B) Donostiarako B) Ermuatik
- C) Donostiko C) Ermutik
- D) Donostiarako D) Ermutik

51.- Zein aukeratuko zenuke amonaren kuttuna zarela adierazteko?

- A) Amonak begitan hartu nau.
- B) Amonak begizkoa bota dit.
- C) Amonaren begitakoa naiz.
- D) Begitik jota daukat amona.

52.- “Aste honetan amaituko dut” esan zigun.

- A) Aste honetan amaituko lukeela esan zigun.
- B) Aste honetan amaituko zukeela esan zigun.
- C) Aste honetan amaituko zuela esan zigun.
- D) Aste honetan amaituko lukeela esan zigun.

53.- Retegi(k) eta Galartza(k) datorren igandean Eibarko pilotalekuan ...

- A) jolastuko dira.
- B) jolastuko dute.
- C) jokatuko dute.
- D) jokatuko dira.

54.- Zein aukeratuko zenuke?

- A) Nik pertsonalki hauxe aukeratuko nuke.
- B) Nik neuk hauxe aukeratuko nuke.
- C) Ni neuk hauxe aukeratuko nuke.
- D) Nik neu hauxe aukeratuko nuke.

55.- Gazteak buruan ere hesteak. Aukera ezazu atsotitz honen baliokidea.

- A) Zintzurra aldapa eta sabela zelai ditu gazteak.
- B) Jandako mehea bai, jandako lodirik ez.
- C) Txakur goseak hezurra amets.
- D) Eskolumeak sasiz sasi asko jan eta gutxi ikasi.

56.- Zein da zuzena?

- A) Horrelako gauzak egitea ondo etorriko zaizkio.
- B) Horrelako gauzak egin ondo etorriko zaio.
- C) Horrelako gauzak egitea ondo etorriko zaio.
- D) Horrelako gauzak egiteak ondo etorriko zaizkio.

57.- Hauetariko zeinek ematen ditu ezkurrak?

- A) Arteak.
- B) Zumarrak.
- C) Urkiak.
- D) Makalak.

58.- Azken bolada honetan ez zebilen oso sano eta atzo iluntzean...

- A) leihotik bota zen.
- B) leihotik behera bota zuen bere burua.
- C) leihotik bota zuen.
- D) leihotik jaurti zuen burua.

59.- Zer dago txarto esaldi honetan?. Koldo oso gaizki eramaten da bere anai-arrebekin.

- A) Anai-arrebekin jarri beharrean, anaia-arrebekin jarri behar da.
- B) Da horren lekuan du jarri behar da.
- C) Eramaten
- D) Ezer ez.

60.- Oporraldi ona izan!. Zer erantzun dagokio?.

- A) Baita zeu ere!
- B) Baita zeuri ere!
- C) Baita zeuk ere!
- D) Berdinki!

61.- Okela erosteko asmotan joan naiz, baina itxura txarra zuenez gero, okelaren..... arraina erosi dut.

- A) beharrea
- B) truke
- C) ezean
- D) ordez

62.- Zein da zuzena?

- A) Mehategi hartan gure ugazabaren hamahiru lehengusu hil ziren.
- B) Meategi hartan gure ugazabaren hamairu lehengusu hil ziren.
- C) Mehategi haretan gure ugasabaren hamahiru lehengusu hil ziren.
- D) Meategi hartan gure ugazabaren hamahiru lehengusu hil ziren.

63.- Lehiaketan parte hartu hurbil zaitezte epaimahaira.

- A) duzuenok
- B) duzuenak
- C) duzuenek
- D) dutenek

64.- Gertatuak gertatu, gu beti euskaldun!. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Gertatzen denaren arabera, gu beti euskaldun!.
- B) Gertatuen gorabehera, gu beti euskaldun!.
- C) Gertatzen denagatik, gu beti euskaldun!.
- D) Gertatzen dena gertatzen dela, gu beti euskaldun!.

65.- Zuek ere lagunduko duzue, ezta?. Zein erantzun dagokio?

- A) Nola ez!
- B) Lagunduko ez dugu ba!
- C) Ba bai!
- D) Noski baietz!

66.- Har ezazu euritakoa, ...!

- A) euria dago eta!
- B) euria dihardu eta!
- C) euriak dihardu eta!
- D) euriak ari du eta!

67.- Zein aukeratuko zenuke zure “curriculum vitae”aren bukaerarako?

- A) Esatekorik gabe, eta zuen erantzunaren zain, agurtzen zaituztet.
- B) Ez daukat gehiago esateko, beraz, zuen erantzunaren zain, agurtzen zaituztet.
- C) Honenbestez, bukatu eta agurtzen naiz.
- D) Besterik gabe, agur terdi.

68.- Zein da zuzena?

- A) Aitorrek hiltzailea aurkituko zuela zekien.
- B) Aitorrek bazekien hiltzailea aurkituko zuenik.
- C) Aitorrek zekien ere hiltzailea aurkituko zuela.
- D) Aitorrek bazekien hiltzailea aurkituko zuena.

69.- Goazen etxera!

- A) hamarrak doaz izatera eta!
- B) hamarretara doa eta!
- C) hamarrak gure gain ditugu eta!
- D) hamarrak heltzear daude eta!

70.- “Majo bizi dira horiek inoren lepotik”. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Jatorrak direnak edonorekin bizi dira ondo.
- B) Lepotik helduta ibiltzeak adiskidetasuna adierazten du.
- C) Ederto asko bizi dira horiek inork egindakoarekin.
- D) Ondo bizi direnak inoren kontura bizi dira.

71.- Aurtengo ihauterietan jantziko naiz.

- A) ijito
- B) ijitoz
- C) ijitoaz
- D) ijitotaz

72.- Haurtzaroan bazenekien ere, luzaroan ez ibiltzearen ondorioz ahaztu egin zaizula azaltzeko, zein erabiliko zenuke?

- A) Bizikletan ibiltzen ahaztu zait.
- B) Bizikletan ibiltzea ahaztu zait.
- C) Bizikletan ibili ahaztu zait.
- D) Bizikletaz ibiltzea ahaztu zait.

73.- Zein da zuzena?

- A) Zenbait herritako geltokiak ez dira batere egokiak.
- B) Zenbait herrietako geltokiak ez dira batere egokiak.
- C) Zenbait herriretako geltokiak ez dira batere egokiak.
- D) Zenbait herriko geltokiak ez dira batere egokiak.

74.- Esanezina daukanari deritzogu.

- A) tentela
- B) totela
- C) tentea
- D) ahokorapilolari

75.- Zein da zuzena?

- A) Botika hura hartu ondoren, txakurra otso bihurtu zen.
- B) Botika hura hartu ondoren, txakurra otsoan bihurtu zen.
- C) Botika hura hartu ondoren, txakurra otsotan bihurtu zen.
- D) Botika hura hartu ondoren, txakurra otsoarengan bihurtu zen.

76.- Atzoko antzerkira joateko aitak sarrerak ekarri zizkizuen. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Atzoko antzerkira joan zitezen aitak sarrerak ekarri zizkizuen.
- B) Atzoko antzerkira joan zintzateten aitak sarrerak ekarri zizkizuen.
- C) Atzoko antzerkira joan zintezten aitak sarrerak ekarri zizkizuen.
- D) Atzoko antzerkira joan zintzaten aitak sarrerak ekarri zizkizuen.

77.- Hotzaren hotzez sudurra ere izoztu egin zitzaion. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Hotz asko egin zuenez gero, sudurra ere izoztu egin zitzaion.
- B) Hainbeste hotz egin zuen, ezen sudurra ere izoztu egin bait zitzaion.
- C) Hotz ikaragarria egin zuenez gero, sudurra ere izoztu egin zitzaion.
- D) Hotz gehiegi egin zuenez gero, sudurra ere izoztu egin zitzaion.

78.- Zer dago txarto esaldi honetan?. "Jon Sarasuak botatako iritziei buruzko komentarioa egin nahi nuke".

- A) Buruzko horren lekuan buruz jarri behar da.
- B) Egin jarri beharrean, egitea jarri behar da.
- C) Nahi horren lekuan nahiko jarri behar da.
- D) Ezer ez.

79.- Gurasoek ez zuten baietzik esan, umeak etorriko dira.

- A) batipat
- B) behinipehin
- C) haatik
- D) aitzitik

80.- Zein da zuzena?

- A) Itxaron pixkat!
- B) Itxaron apurtxo batean!
- C) Itxaron une bat!
- D) Itxaron pixka bat!

81.- Zein erabiliko zenuke mesederen bat egin dizun lagunari eskerrak emateko?

- A) Estimatuko nizuke mesedea.
- B) Nere doluminak eskaintzen dizkizut.
- C) Portatu zara!
- D) Axola ez bazaizu, eskertuko nizuke mesede hori egitea.

82.- Izerditzea ona da, gero hoztu ezean. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Izerditzea ona da, gero hozten ez bagina.
- B) Hoztea ezezik, izerditzea ere ona da.
- C) Izerditzea ona da, gero hozten ez bagara.
- D) Hoztu aurretik izerditzea ona da.

83.- Zein egoeratan erabiliko zenuke atsotitz hau? "Otsoa non aipa han gerta".

- A) Aipatutakoa hurrean izaten dela adierazteko.
- B) Zirikatzailearen bat hurbiltzen zaidanean.
- C) Gauza txarrei buruz hitz egiteak ondorio txarrak dakartzala adierazteko.
- D) Adarjotzailearen batek xelebrekeriaren bat aipatzen duenean.

84.- Etxe badakizue lurrean dagoena jaso egin behar dela.

- A) honetakook
- B) hontakook
- C) hontakoek
- D) honetakoek

85.- Non izango da azterketa?

- A) Filosofiako Fakultatean.
- B) Filosofiazko Fakultatean.
- C) Filosofi Fakultatean.
- D) Filosofia Fakultatean.

86.- Ume gogaikarri honek

- A) Ezergatik nigarrez hasten da.
- B) Hutsagatik egiten du nigar.
- C) Edozerengatik egiten du nigar.
- D) Zerbaiteri egiten du nigar.

87.- Maiteen zu zeu zaitut. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Beste inork baino gehiago maite zaitut.
- B) Gehien zeuri maite zaitut.
- C) Beste inori baino gehiago maite zaitut.
- D) Beste inor baino maiteago zaitut zu.

88.- Ohartu naiz bai moko finekoa ...

- A) zarenaz.
- B) zarenentz.
- C) zarela.
- D) zarenetaz.

89.- Urbiara joaten bazara ekar ezazu, tripako mina ere sarritan izaten duzu eta!.

- A) lilia
- B) kamamila
- C) bitxilorea
- D) zintzarria

90.- Eskilara gainera igota kristalak garbitzen ari zen langileak ez zion ijitoari dirurik eman eta ... aukera ezazu azken honek esan ziona.

- A) Jausiko ahal haiz eta muturrak apurtu!.
- B) Ojala jausten haizen!.
- C) Jausi ahal haiz eta muturrak apurtu. Hau tamala.
- D) Jausiko bahintz muturrak apurtuko hituzke!.

91.- Euskara-arloan jakitun direnek Eibarko oso aberatsa dela diote.

- A) hizkuntza
- B) mintzaira
- C) hizkera
- D) berriketa

92.- Hurrengo hitzaldian arituko gara.

- A) jantzietaz
- B) jantzieri buruz
- C) jantziataz
- D) jantziez

- C) Ezetz igarri!
- D) Ez dakizula!

53.- Zein da zuzena?

- A) Eibarren gazteen artetik % 3,2k besterik ez du egiten euskeraz kalean eta Elgoibarren % 12,2k.
- B) Eibarren gazteen artetik % 3,2ak besterik ez du egiten euskeraz kalean eta Elgoibarren % 12,2ak.
- C) Eibarren gazteen artetik % 3,2ek besterik ez du egiten euskeraz kalean eta Elgoibarren % 12,2ek.
- D) Eibarren gazteen artetik % 3,2ik besterik ez du euskeraz egiten kalean eta Elgoibarren % 12,2ik.

54.- Retegik pilotaren lasterka joan arren huts egin du.

- A) alboan
- B) atzetik
- C) ezkerrean
- D) aurrean

55.- Irakasleak, ikasgelan erretzea debeka lehentxoago ere debekatu du eta.

- A) leikezu
- B) dezake
- C) dezakezu
- D) daiteke

56.- Burdina bero deno jo behar da. Zer esan nahi du esaera honek?

- A) Arazoak garaiz konpondu behar direla.
- B) Arazoak bero-bero jotzen konpondu behar direla.
- C) Burdina gori denean ezin dela ikutu.
- D) Arazoak eta burdinak urtu egiten direla.

57.- Aukeratu zuzena.

- A) Zuen etxean daukazun liburu gehienak apurtuta daude.
- B) Zuen etxean daukazuen liburu gehienek apurturik daude.
- C) Zuen etxean daukazuen liburu gehienak apurturik daude.
- D) Zuen etxean daukazuen liburu gehienak apurtutak daude.

58.- Zer moduz dago gaixorik duzuen anaia?

- A) Zorigaitzez dago.
- B) Hobeto dago.
- C) Txantxetan dago.
- D) Hobetoago dago.

59.- Diru pila elkartuta:

- A) Aberatsa.
- B) Dirutza.
- C) Dirutsu.
- D) Dirudun.

60.- Ordena itzazu txikienetik handienera.

- A) Anana, muxika, urra, intxaurra.
- B) Muxika, intxaurra, urra, anana.
- C) Urra, muxika, intxaurra, anana.
- D) Urra, intxaurra, muxika, anana.

61.- Zertaz hitz egin zuen Eguzki taldeak?

- A) Ekologiaz.
- B) Ekologiaren buruz.
- C) Ekologiari buruz.
- D) Ekologia buruz.

62.- Mikelek esan dit gustora ikusiko pelikula berri hori.

- A) litzatekeela
- B) lukeela
- C) zuela
- D) litzatekeela

63.- Goizean jaiki bezain laister botatzen ditu ...

- A) nagiak.
- B) aho zabalak.
- C) gogoak.
- D) ametsak.

64.- Zer eguraldi izan duzue Pirineoetan? Zein da zuzena?

- A) Hotz handia pasatu genituen lehen egunean.
- B) Hotz asko pasatu ginen lehen egunean.
- C) Hotz handia izan genuen lehengo egunean.
- D) Hotz asko izan genuen lehenengo egunean.

65.- Gaurko baserritar gazteak baserritik jaitsi eta bihurtzen dira.

- A) hiri zalea
- B) kalekume
- C) hirigilea
- D) kaletar

66.- Iluntzean afaltzera joango gara?

- A) Ez, ez dut denborarik!
- B) Ez, ez dut astirik!
- C) Ez, ez dut aisea!
- D) Ez, ez dut denbora!

67.- Baloiak buruan jo eta negarrez abiatu zen.

- A) amarengandik
- B) amarengan
- C) amarenganantz
- D) amarenganako

68.- Usabiagak ez du esan euririk egingo ez ...

- A) duena.
- B) duela.
- C) duenik.
- D) zuela.

69.- Zein da luzeena?

- A) Birikiak.
- B) Puxika.
- C) Hesteak.
- D) Giltzurrunak.

70.- Gure lagunak kontatu zuen txistea entzutean ikaragarritzko egin genituen.

- A) iskanbila
- B) jira-birak
- C) oihu-aldarriak
- D) barre-algarak

71.- Hauta ezazu perpaus zuzena.

- A) Ke asko dago Bilbo inguruan.
- B) Ke handia dago Bilbo inguruan.
- C) Ke asko dago Bilbotik inguruan.
- D) Ke handia da Bilboko inguruan.

72.- Ordena itzazu goitik behera gorputz atal hauek.

- A) Kokotsa - urdaila - berna - orkatila.
- B) Urdaila - berna - kokotsa - orkatila.
- C) Orkatila - kokotsa - berna - urdaila.
- D) Kokotsa - orkatila - urdaila - berna.

73.- Atzo ikusi zintudanean zuk ez agurtu.

- A) zenidan
- B) zenidaken
- C) nauzun
- D) ninduzun

74.- Aita hil berria zen arren, semeak ...

- A) orain ez zekien ezer.
- B) jadanik ez zekien ezer.
- C) zegoeneko ez zekien ezer.
- D) artean ez zekien ezer.

75.- Zein dago gaizki?

- A) Bilera egin dute.
- B) Batzarrean bildu dira.
- C) Bilara ospatu dute.
- D) Biltzarra izan dute.

76.- Jasoko ote du Perurenak 320 kiloko harria?

- A) Jakina!
- B) Baietz horixe!
- C) Horixe bai!
- D) Noski bai!

77.- Hauta ezazu perpaus zuzena:

- A) Zelako giharreak dituzten etorri diren mutilak.
- B) Zelako giharreak dituzten etorri diren mutilek.
- C) Zelako giharreak dituzte etorri diren mutilok.
- D) Zelako giharreak dituzte etorri diren mutilek.

78.- Baserritarrak idi probarako zituen idiak.

- A) uztartu
- B) lotu
- C) elkartu
- D) batu

79.- Zinemarako sarrerak hartzerakoan Garikoitzekin topo egin nuen.

- A) Zinemarako sarrerak hartu eta gero Garikoitzekin topo egin nuen.
- B) Zinemarako sarrerak hartzen ari nintzela Garikoitzekin topo egin nuen.
- C) Zinemarako sarrerak hartu baino lehen Garikoitzekin topo egin nuen.
- D) Zinemarako sarrerak hartzen nituenean Garikoitzekin topo egin nuen.

80.- Aurtengo gabonetan iazko pelikula ikusi dugu.

- A) bera
- B) berdina
- C) berdintsua
- D) iguala

81.- Eskerrak azterketa aprobatu!

- A) dut!
- B) dudan!
- C) da!
- D) dudana!

82.- Zinemara sartzean zigarroak genituen.

- A) jan
- B) miaztu
- C) xurgatu
- D) itzali

83.- Sudurretik odola eraman dute ospitalera.

- A) jario
- B) jarioan
- C) dariola
- D) tantaka

84.- Nahiz eta nik aitona gurtu, berak ez nau begi onez ikusten. Zer esan nahi du?

- A) Aitonari agur egiten diodala baina berak ez nauela ondo ikusten.
- B) Aitonak agur egiten didala baina berak ez nauela ondo ikusten.
- C) Nik aitona adoratzeko dudana arren ez naizela bere gogokoa.
- D) Aitonak adoratzeko nauen arren ez naizela bere gogokoa.

85.- Politikoek esandakoekin ez nago ados.

- A) Politikoek esan dutenarekin konforme nago.
- B) Politikoek esan dituztenekin ez nator bat.
- C) Politikoek esan dituztenekin konforme nago.
- D) Politikoek esan dutenarekin ez nator bat.

86.- Aldamenean duzunak "ipurterre" du izena. Aukeratu baliokidea.

- A) Aldamenean duzunak "ipurterre" deitzen du.
- B) Aldamenean duzunak "ipurterre" deitzen zaio.
- C) Aldamenean duzunari "ipurterre" deritza.
- D) Aldamenean duzuna "ipurterre" deitzen dute.

87.- Sinonimo hauetatik zein dago gaizki?

- A) Faborez.
- B) Mesedez.
- C) Arren.
- D) Otin.

88.- Zeharo aspertuta zaude. Zer esamolde erabiliko zenuke egoera horretan?

- A) Kokoteraino nago!
- B) Sudurreraino nago.
- C) Bekokiraino nago!
- D) Gurunetaraino nago!

89.- Anton jaiki da iratzargailua jo duenean?

- A) Ezta ikararik ere ez!
- B) Ikararik ere!
- C) Ez da ikaratu!
- D) Ez ditu ikararik ere!

90.- Gaurko gazteek ez dute lotsa ...

- A) anitz.
- B) askorik.
- C) sarri.
- D) handirik.

91.- Ahaztu zaizkit ikasitakoak.

- A) urtearen zehar
- B) urtean zehar
- C) urteren zehar
- D) urteatik zehar

92.- Haragia erosi duzu? -Bai- Eta arraina? ...

- A) Bai ere!
- B) Ere!
- C) Baita!
- D) Bebai!

93.- Mahai gaineko lorontzia apurtu zuenean ...

- A) bereak eta bost entzun zituen.
- B) bere amarenak entzun zuen.
- C) kristorenak entzun zuen.
- D) zorionak entzun zituen.

94.- Gaurko berbena ere, bezala berandu hasiko da.

- A) berriz
- B) legez
- C) ohizko
- D) ohi

95.- Joku etxeetan diru asko dute.

- A) jolasten
- B) jokatzen
- C) olgatzen
- D) oparitzen

96.- Ez badugu euskaraz hitz egiten ...!

- A) gureak egin ditu!
- B) gureak egin du!
- C) gurea egin da!
- D) berea egin du!

97.- Zein da zuzena?

- A) Noiz zure zorionak?
- B) Noiz egiten dituzu urteak?
- C) Noiz dira zure urteak?
- D) Noiz da zure zorionak?

98.- Gerra ostean, gorriak ikusita gaude gu. Zer esan nahi du?

- A) Gerra ostean estu eta larri ibili zirela.
- B) Gerra ostean komunistak ikusi zituztela.
- C) Gerra ostean komunistek ikusi gintuztela.
- D) Gerra ostea ahal eta ezin joan zela.

99.- Atzo gaueko afarian bi kilo mazapan jan ondoren gaude.

- A) lodi
- B) betetak
- C) ondoezik
- D) gizen

100.- Ehungarren galdera denez utziko dugu.

- A) bere kabuz
- B) eten gabe
- C) bertan behera
- D) nekez

ERANTZUNAK

1.- B	2.- A	3.- C	4.- A
5.- B	6.- A	7.- C	8.- B
9.- A	10.- B	11.- B	12.- A
13.- A	14.- D	15.- B	16.- D
17.- B	18.- B	19.- A	20.- A
21.- B	22.- B	23.- B	24.- A
25.- B	26.- B	27.- A	28.- C
29.- D	30.- A	31.- A	32.- C
33.- A	34.- B	35.- D	36.- A
37.- C	38.- B	39.- D	40.- C
41.- B	42.- C	43.- A	44.- C
45.- A	46.- A	47.- A	48.- B
49.- A	50.- D	51.- B	52.- C
53.- A	54.- B	55.- B	56.- A
57.- C	58.- B	59.- B	60.- D
61.- A	62.- B	63.- A	64.- C
65.- D	66.- B	67.- C	68.- C
69.- C	70.- D	71.- B	72.- A
73.- D	74.- D	75.- D	76.- A
77.- B	78.- A	79.- B	80.- A
81.- B	82.- D	83.- C	84.- C
85.- B	86.- C	87.- D	88.- A
89.- A	90.- D	91.- B	92.- C
93.- A	94.- D	95.- B	96.- B
97.- B	98.- A	99.- C	100.- C

OHEZALETASUNA

«Ohean hitzegin, zigarroak erre, bonboiak jan, edari goxoren bati tragoskak lapurtu, musika entzun: "izara artean mundua dago, izara artean zerua..."».

Ohean pena guztiak joaten zaizkizula diozu eta nik, nekez uler dezaket hori, ohezale eskasa nauzulako.

Ez dut txikitatik behar adina baino denbora gehiagorik ohean pasa gaisoaldietatik aparte, eta gaur egun ere, ohean denbora gehiago ematen saiatu arren, zaila egiten zait nagikeria eta denbora galtzearekin ez lotzea ohean denborapasa egotea. Zu bezalako ohezaleek inbidia pixkat ere eman ohi didate, nahiz eta igande osoa maindiren artean gustora nola igaro daitekeen ez ulertu.

Zuk, berriz, Erdi Aroko ohitura zaharra berri beharko litzatekeela diozu, hau da, edozein arazo politiko edota borroka konpondu ondoren alde batekoek edo bestekoek elkarrekin lo egin beharko luketela, bi aldetatik konfidantza osoa dagoela erakusteko. Ohe handi bakar batekin egiten duzu amets, ohe indibidualak oraindik asmatu gabeak ziren garai haietakoak bezalakoak non gurasoek, seme-alabek, bestelako gonbidatuek eta baita zenbait txakur edo katuk lo egiten bait zuten.

Horizontalean ezagutu beharko genukeela elkar diozu, eta ez zoritxarreko ohizko bertikalean, ez bait gara berdina nonbait etzanda egonez gero eta botere harremanak zailagoak gertatzen bide dira bestearen berotasuna ondoan sentituz gero. Barregura ematen didazu ohezaletasunari buruzko laudorioak eskeintzen dizkidazunean. Zure hitzetan, ez dago munduan ohean erdilo-erdiesna egotea baino gauza hobearik, depresioaldirako tratamendu egokiagorik edota irudimenerako hegoaldi aproposagorik... Ohean hitzegin, zigarroak erre, bonboiak jan, edari goxoren bati tragoskak lapurtu, musika entzun: "izara artean mundua dago, izara artean zerua..."

Bai, badakit ez zarela amodioaz eta izaren arteko jolas erotikoez soilik pentsatzen ari, beste nolabaiteko bizitza hipotetiko batetaz baizik; horregatik, agian, nire eszeptizismoa uxatu nahian, Historiara jotzen duzu, Richelieu kardinala aipatzen didazu, zeinak, zuk diozunez, egunean orduerdi bat bakarrik egiten bait zuen ohetik kanpo. Tarte horretan erregearengana joaten zen, zenbait berri aztertu, haren aginduak jaso eta berriro ohera abiatzen zen. Eta Henri Matissena? Ez al dakit ba nik, hain artezalea izanik, haren anekdota bitxia? Ezetz? Bada, zuri pintore horrek egin zuena zoragarria iruditzen zaizu: ohean zegoen bitartean pintzel luze batez gelako sapaia pintatu omen zuen. Eta ez da zure ohearen aldeko manifestua horretan bukatzen: Karlos II-a, XVIII mendeko errege suediarra, aipatzen didazu segidan... Errusiako Pedro Handiarekin izan zuen gerra galdu ondoren, ohean sartu eta hantxe, irten gabe, hamazapi hilabete pasa zituela aurpegiratzen didazu, nire ordenagailuari begirada azkarra eta haserrea zuzentzen diozun bitartean.

Baina alperrikakoak dira zure arrazoi guztiak, maite, Jaieginerako artikulua hau idatzi behar dut, eta hori bukatu arte ez dut uste ni berriro oheraraztea lortuko duzunik.

JAIEGIN

Honako 12 galdera hauek textuari buruzkoak dira.

1.- Zer da idazlearentzat ohean orduak eta orduak ematea?

- A.- Gaixo egotea.
- B.- Alperkeria.
- C.- Iganderoko jarduna.

2.- Arazo politikoak eta borrokak direnean:

- A) Konfidantza osoa adierazi beharko litzateke.
- B) Ohean sartu eta konpontzen dira.
- C) Konpondu ondoren elkarrekin lo egin behar da.

3.- Ohe handi bakar batekin...

- A) ezin da ametsetan egin.
- B) desmadreak handiagoak ziren.
- C) familiek batuago lo egiten zuten.

4.- Etzanda egonez gero...

- A) berotasuna handiagoa izaten da.
- B) botere harremanak sendotzen dira.
- C) ezberdintasunak ekiditzen dira.

5.- Zerk sortarazten dio barrea?

- A) Ohezaletasunak.
- B) Ohean egoteari botatzen zaizkion alabantzak.
- C) Erdilo-erdiesna egoteak.

6.- Depresioak tratatzeko onena litzateke:

- A) bonboiak jan eta zigarroak erretzea.
- B) irudimena hegan jartzea.
- C) erdilo-erdiesna egotea.

7.- Izara artean...

- A) zerua dago.
- B) edari goxoa dago.
- C) ez dago erretzerik.

8.- Zertaz pentsatzen ari da?

- A) Bizitza hipotetikoaz dihardu.
- B) Izarren arteko jolas erotikoez soilik pentsatzen ari da.
- C) Jolas erotikoaz jardun da.

9.- Richelieu kardinalak:

- A) Agintari zorrotzaren sona izan zuen.
- B) Jaikita ordu erdiren bat baino ez zuen ematen.
- C) Ohean ordu erdiren bat besterik ez zuen egiten.

10.- Nork margotu zuen bere gelako sapaia ohean zegoela?

- A) Pedro Handiak.
- B) Henri Matissek.
- C) Karlos II.ak.

11.- Errusiako Pedro Handiak...

- A) ohean 17 hilabete eman zituen.
- B) gerra irabazi zuen.
- C) ohean 17 gerra galdu zituen.

12.- Erantzun zuzena aukeratu.

- A) Arrazoi guzti horiek ez dute ezertarako balio.
- B) Arrazoiak ordenagailuko pantailan daude.
- C) Arrazoia baduzu ere ez naiz zurekin oheratuko.

13.- Elizara horrenbeste joatearekin bihurtu zaigu Mikel.

- A) Katolikotan
- B) Katoliko bezala
- C) Katoliko
- D) Katolikoa

14.- Zein da zuzena?

- A) Mutil nahikoa makala da.
- B) Mutil nahikoa makal da.
- C) Nahikoa mutil makal da.
- D) Nahikoa mutil makala da.

15.- Azkenengo urteetan pinuen oso handia izan da.

- A) ugalketa
- B) ugalkuntza
- C) ugalgarritasuna
- D) ugaldura

16.- Mahai dotore hauek eginakoak dira.

- A) eskuez
- B) eskuaz
- C) eskuekin
- D) eskuz

17.- Suizara erloju berriak joan ziren.

- A) eros zezaten
- B) erosiz gero
- C) erostekotan
- D) erosirik ere

18.- Zein da zuzena?

- A) Berebiziko harridura eragin zigun bapatean.
- B) Berebiziko arridura eragin zigun bapatean.
- C) Berebisiko harridura eragin zigun bapatean.
- D) Berebiziko harridura heragin zigun bapatean.

19.- “Une batean geldirik geratu zen ate parean, ez aurrera, ez atzera”. Aukeratu baliokidea.

- A) Une batean geldirik geratu zen ate parean, ez aurrera ez atzera jotzen ez zuela.
- B) Une batean gelditu zen ate parean, ez zuen ez aurrea ez atzea.
- C) Une batean geratu zatzaizkigun ate parean, ez aurrera ez atzera.
- D) Une batez geldirik geratu zen parean, ez ate aurrean, ez atzean.

20.- Olatu xumeetan kulunkatzen ziren.

- A) Olatuak handiak ziren.
- B) Ez dago olaturik.
- C) Olatuak zuriak dira.
- D) Olatu txikiak ziren.

21.- Kotxe berria erosi; zaharra erosi duzu.

- A) beharrean
- B) hots
- C) hala ere
- D) berriz

22.- Zer eguraldi egingo duen jakin nahi dugunean...

- A) eguraldiaren buruz galdetzen dugu.
- B) eguraldiz galdetzen dugu.
- C) eguraldiari buruz galdetzen dugu.
- D) eguraldi gainean galdetzen dugu.

23.- Jaia bi hilabetez aurreratu zuten, estrenaldia lehenbailehen izan ...

- A) zezan.
- B) zezanak.
- C) zedila.
- D) zedin.

24.- Lagunarengandik jaso duzu opari hori?

- A) Ez, mutil-lagunarengandik jaso dut.
- B) Ez, mutil-lagunetik jaso dut.
- C) Ez, mutil-lagunarengatik jaso dut.
- D) Ez, mutil-lagunaretik jaso dut.

25.- Badago inor etxean?

- A) Ez, inor ere ez.
- B) Ez dago inorik.
- C) Ez dago inor.
- D) Ez dago inor ere ez.

26.- Beste hamaika amets egin zituen. Zer esan nahi du?

- A) 11 amets egin zituela.
- B) Ez zuela amets gehiegirik egin.
- C) Makina bat amets egin zituela.
- D) Amets handiak egin zituela.

27.- Lurrera bota zuen gizona eta astindu ederra eman zion. Aukeratu baliokidea.

- A) Gizonari lurrera bota zion, eta astindu ederra eman.
- B) Lurrera bota zuen gizona eta astindu ederrak eman zion.
- C) Lurrera bota eta astindu zion.
- D) Lurrera bota zuen gizona eta baita astindu ederra eman ere.

28.- Agindu zuzenak ematerakoan:

- A) Bihar bertan etorri!
- B) Bertan etorri bihar!
- C) Baietz, bihar bertan!
- D) Etorri bertan bihar!

29.- Noiz ikusi ninduzun?

- A) Beste egunean ikusi zintudan.
- B) Joan den egunean ikusi zintudan.
- C) Beste egunean ikusi zaitut.
- D) Joan den egunean ikusi nizun.

30.- Ez dakizu nola jokatu duzun.

- A) Auskalo zer egin!
- B) Hemen dago zer egin jakin barik!
- C) Neure buruaren beldur naiz.
- D) Batek badaki ala?

31.- 3 gradu 0 azpitik dagoenean, zer esaten duzu?

- A) Hotzak hilda nago.
- B) Hotza jota nago.
- C) Hotza nago.
- D) Hotzak jango nau.

32.- “Eta berarengana hurbilduz amoltsuki heldu zuen”. Aukeratu baliokidea.

- A) zakar-zakar heldu zuen.
- B) goxo-goxo heldu zuen.
- C) barre eginez heldu zuen.
- D) kostata heldu zuen.

33.- Aukeratu egokiena.

- A) Batek daki betaurrekoak diren neureak!
- B) Auskalo ekarritakoak diren bai ala ez!
- C) Nork jakin betaurrekoak neureak direla!
- D) Batek daki ekarri dituenak neureak direnentz!

34.- Aukera ezazu zuzena:

- A) Alboan daudenak oso maite gaituzte.
- B) Alboan daudenek asko maite gaituzte.
- C) Alboan daudenek oso maite gaituzte.
- D) Alboan daudenak asko maite gaituzte.

35.- Zenbat egun eman dituzue oporretan?

- A) Hiru asteak egon gara han.
- B) Hiru astea egon gara han.
- C) Hiru aste egon gara han.
- D) Hiru aste egin ditugu han.

36.- Arras izateaz gainera, eskas samarra da.

- A) berandutiar
- B) berantia
- C) berankorra
- D) beranduzalea

37.- “Eta ezer esan gabe, intzirika hasi ziren”. Zer esan nahi du?

- A) Zaratak atera zituztela.
- B) Saltoka hasi zirela.
- C) Isil-isilik joan zirela.
- D) Hika-mika hasi zirela.

38.- ... beti da beharrezkoa.

- A) Gogokuntza egitea
- B) Gogoeta egitea
- C) Gogotza egitea
- D) Gogopena egitea

39.- Zein da zuzena?

- A) Oso mingaina zorrotz du.
- B) Mingainak oso zorrotza du.
- C) Mingain oso zorrotza du.
- D) Oso mingain zorrotza du.

40.- “Ez ei dute ezer ere ikasi”. Aurreko esaldian, zer esan nahi du “ei” hitzak?

- A) Hori egiaztatuta dagoela.
- B) Hori ziurra dela.
- C) Hori entzun duela.
- D) Hori ustea dela.

41.- Lagunari liburua eskatu ondoren, ezetza ematen dizu.

- A) Begiradarik ere ez huke emango!
- B) Ez dun begirik ere ematen!
- C) Ez dun emango begiko samarrik ere!
- D) Begiko samarrik ere ez huke emango!

42.- Zein da zuzena?

- A) Kontziderasio orokor bat, askoren ahotan dabilena.
- B) Kotsiderazio orokor bat, askoren haotan dabilena.
- C) Kotsiderasio horokor bat, askoren aotan dabilena.
- D) Kotsiderazio orokor bat, askoren ahotan dabilena.

43.- Ni Donostiara joan baldin eta eguraldi ona egin ...

- A) ninteke A) baleza.
- B) naiteke B) bada.
- C) ninteke C) badu.
- D) naiteke D) baleza.

44.- ... bidea hartu zuen.

- A) Etxetiko
- B) Etxearen
- C) Etxeraino
- D) Etxeko

45.- “Jalgitzen ikusi nituen”. Zertan ikusi nituen?

- A) Jasotzen.
- B) Irtetzen.
- C) Jazotzen.
- D) Sartzen.

46.- Zein da zuzena?

- A) Jende askok etorri dira.
- B) Jende asko etorri da.
- C) Asko jende etorri da.
- D) Asko jendeak etorri dira.

47.- “Den-dena kontra jan du”.

- A) gogo
- B) gogoz
- C) gogoen
- D) gogoaz

48.- “Goiz osoa eman du”.

- A) hoean
- B) oehan
- C) oyeaan
- D) oheaan

49.- Zein da zuzena?

- A) Ahurrek otsoa ikusi dute.
- B) Haurrak otsoa ikusi dute.
- C) Hurrek otsoa ikusi dute.
- D) Ahurrek otsoa ikusi dute.

50.- “Euskara dutenak, erreparorik gabe dabilta”.

- A) murrizta
- B) murrigena
- C) murrigorra
- D) murrigera

51.- Zein da zuzena?

- A) Esperientzia konplexua, ugaria eta atzeman ezina da, hein handi batetan.
- B) Esperientzia konplexua, ugaria eta atzeman ezina da, hein handi batetan.
- C) Esperientzia konplexua, ugaria eta hatzeman ezina da, hein handi batetan.
- D) Esperientzia konplexua, ugaria eta atzeman ezina da, ehin handi batetan.

52.- “Gaur goizean entzun duelarik, korrikari eman dio”. Noiz?

- A) Entzun ondoren.
- B) Entzun baino lehen.
- C) Entzun duenean.
- D) Entzun eta agudo.

53.- Udaletxera idatzi eta horrela bukatu duzu:

- A) Agur, lagunok.
- B) Erantzuna baiezkoa dela jakinda, agurtzen zaituzte.
- C) Erantzunaren zain, har ezazue gure besarkadarik handiena.
- D) Erantzuna baiezkoa izango delakoan, agurtzen zaituzte.

54.- “Mahaia lekuz duzue”.

- A) higitu
- B) astindu
- C) manatu
- D) baztertu

55.- Ordena itzazu goitik behera:

- A) Kopeta - kokotsa - adatsa - betseina.
- B) Adatsa - betseina - kopeta - kokotsa.
- C) Betseina - adatsa - kokotsa - kopeta.
- D) Adatsa - kopeta - betseina - kokotsa.

56.- Ordena itzazu motzenetik luzeenera.

- A) Arraspa - iltzea - eskuarea - aizkora.
- B) Iltzea - aizkora - eskuarea - arraspa.
- C) Iltzea - aizkora - arraspa - eskuarea.
- D) Iltzea - arraspa - aizkora - eskuarea.

57.- “Eltze txikiak laster gainez”.

- A) jotzen du
- B) egiten du
- C) hartzen du
- D) ematen du

58.- “Eskerrak laguntzera garaiz etorri bestela gaur ez genukeen kontatuko”.

- A) direnari
- B) zirenari
- C) ziren eta
- D) zirelarik

59.- “Hitz gogorak sarritan esaten dizkio horrek, honek oso begi onez ikusten du”.

- A) hala ere
- B) baina
- C) berriz
- D) alabaina

60.- “Buka dezakeelakoa neuk ere ez dut sinisten”. Aurkitu baliokidea.

- A) dezaken.
- B) zenezaken.
- C) zezakeela.
- D) dezakeelako hori.

61.- ... buruketak ekarri zizkidaten, lehenbailehen egiteko.

- A) Kimikako
- B) Kimika
- C) Kimikazko
- D) Kimikaren

62.- Azteartean lana eginez gero, uste dugu idazlana bukatuko ...

- A) lukela.
- B) luketela.
- C) zuela.
- D) zitekeela.

63.- Gaur gauean programa berria emango dute, gure herrikoa azaltzen ...

- A) dela.
- B) denik.
- C) dena.
- D) denean.

64.- Itzuli zarenean ez ere egin.

- A) didazu ikusi
- B) nazazu ikusi
- C) diezadakezu ikusi
- D) nauzu ikusi

65.- “Azkenerako horretara jarri zen”. Aukeratu esanahi egokia.

- A) Nola eșeri zen esaten du.
- B) Eseri zela esaten du.
- C) Ohitu zela esaten du.
- D) Jezarri zela esaten du.

66.- “Haserraldi baten ondoren batak besteari begiratu eta barrezka hasi ziren”. Aukeratu baliokidea.

- A) Elkarrez trufatu ziren.
- B) Elkar trufatu ziren.
- C) Elkarri trufatu ziren.
- D) Elkar trufatu zuten.

67.- “Beharrezkoa dugu berria egitea”.

- A) mailakuntza
- B) mailaerraza
- C) mailapena
- D) mailaketa

68.- Jaialdira joan nahi duen galdetu ondoren hauxe da erantzuna:

- A) Jakin ez, ba!
- B) Jakina!
- C) Baietz esan!
- D) Horixe baietz!

69.- Aspaldian buruan zenuena, azkenean gertatu da.

- A) Ikusi?
- B) Banengoen ni, ba!
- C) Arrazoia izango dut!
- D) Bazela, ba!

70.- “Edonork zuk baino hobeto”

- A) aukeratu litekeen
- B) aukera litekeen
- C) aukera zezakeen
- D) aukeratu zuen

71.- “Hori ur gaineko bitsetan bizi da”. Zer esan nahi du?

- A) Arazorik gabe bizi dela.
- B) Itsasotik bizi dela.
- C) Arduratuta bizi dela.
- D) Lan astuna duela.

72.- Beti ari dira , inori fama kentzen.

- A) tripa jaten
- B) ezpainak jaten
- C) hitza jaten
- D) azpijanean

73.- “Zarata txarra dauka enpresa horrek”. Zer esan nahi du?

- A) Itxura txarra duela.
- B) Ez dabilela ondo.
- C) Ez dabilela txarto.
- D) Zarata handiak ateratzen dituela.

74.- “Hori egiteko asmotan nintzela uste zenuen.” Aukeratu baliokidea.

- A) Hori egiteko asmoa nuenez uste zenuen.
- B) Hori egiteko asmoz nintzela uste zenuen.
- C) Hori egiteko asmoz nengoela uste zenuelakoan.
- D) Hori egiteko asmotan nintzelakoan zeunden.

75.- Zein da zuzena?

- A) 1992 garren urtarrilaren 25a.
- B) 1992 ko urtarrilaren 25.
- C) 1992.eko urtarrilak 25.
- D) 1992 garreneko urtarrilak 25an.

76.- Berri ona jaso ondoren:

- A) Hau den poza!
- B) Jakin izan banu!
- C) Hau gelditzen zitzaidan, besterik ez!
- D) Praketan kabidu ezinik dago.

77.- Zein da zuzena?

- A) Aurkezpena aitzakiatzat hartuz, pertsonaia ospetsuen jarrera salatzen du.
- B) Aurkespena aitzakiatzat hartuz, pertsonaia ospetsuen jarrera salatzen du.
- C) Aurkespena haitzakiatzat hartuz, pertsonaia ospetsuen jarrera salatzen du.
- D) Aurkezpena aitzakiatzat hartuz, pertsonai hospetsuen jarrera zalatu du.

78.- Zein kasuri egokitzen zaio esamolde hau? “Hitza jan du”

- A) Akatsak egiten dituenari.
- B) Jan eta jan aritzen denari.
- C) Esandakoa betetzen ez duenari.
- D) Hitz egiten erreztasuna ez duenari.

79.- “Oporrak bukatzeaz zeudela, bidetari ekin genion.” Aukeratu baliokidea.

- A) Bidetari eman.
- B) Bidetari joan.
- C) Bidetari lotu.
- D) Bidetari hasi.

80.- Leioha zabaldu duentari zer esaten diozu?

- A) Euririk badu?
- B) Euririk egin du?
- C) Euririk egin da?
- D) Dago euria?

81.- Zirikatzen ibiltzen denari, nola esaten diogu?

- A) Azeriak ere buztan gorria du.
- B) Azeri buztangorri hori!
- C) Ilea hartzen beti!
- D) Beti ziri-ziri!

82.- “Nola joan zen?”

- A) Oparia zuenean joan zen.
- B) Oparia hartutakoan joan zen.
- C) Oparia zuela eta joan zen.
- D) Oparia hartuta joan zen.

83.- Zein da zuzena?

- A) Etxea konpontzeko tresna denak dakargu.
- B) Etxea konpontzeko tresna denak dakartzagu.
- C) Etxea konpontzeko tresnak denak dakartzagu.
- D) Etxea konpontzeko tresnarik denak dakartzagu.

84.- Ez zaiola komeni esateko, zer erabiltzen duzu?

- A) Komeniko ez zaio ba!
- B) Komeni gabe baina!
- C) Buruan kaltea baino ez du jasoko!
- D) Bere buruaren kalterako!

85.- “Lepoa egingo nuke ez duela irabaziko”

- A) Irabaziko duela uste dut.
- B) Ez duela irabaziko uste dut.
- C) Lepoan duen gaisotasunak ez diola irabazten utziko.
- D) Irabazi ala ez, ez dakit.

86.- Gustora bazkaltzen ari denean.

- A) On egin dizuna!
- B) Ona egin!
- C) Bapo ari zara!
- D) Ondo aprobetxatu!

87.- “Asto joan eta mando etorri”. Zer adierazten du esamolde horrek?

- A) Animaliekin ibili dela.
- B) Moldakorra dela.
- C) Ez dela aldatu.
- D) Lehen baino okerrago dagoela.

88.- Loteria txartela zakarrontzira bota ondoren:

- A) Zuk egin duzu egitekoa!
- B) Zuk egin duzuna egitekoa zen!
- C) Ez al duzu buru onik?
- D) Hori da egiteko hori!

89.- Lagunarekin ondo konpontzeko onena duzu egia esatea. Aukeratu baliokidea.

- A) Lagunarekin gezurretan ibiltzen ez duzu ezer lortuko.
- B) Lagunari gezurra esateak ez zaramatza inora.
- C) Lagunari gezurra esateaz ez duzu ezer lortuko.
- D) Lagunari gezurrekin joateak ez du eramaten inori.

90.- Adituek egin dituzten azterketez gain, badira ere zenbait pertsonaren testigantzak. Aukeratu baliokidea.

- A) Adituek egindako azterketak ezik, badira ere zenbait pertsonaren testigantzak.
- B) Adituek egindako azterketak ezezik, badira ere zenbait pertsonaren testigantzak.
- C) Adituek egindako azterketak at, badira ere zenbait pertsonaren testigantzak.
- D) Adituek egindako azterketez gero, badira ere zenbait pertsonaren testigantzak.

91.- Jaten ari zarela eztulka hasten zara:

- A) Eztarrian trabatuta daukat.
- B) Aldrebesko lekutik joan zait.
- C) Ez nago lasai.
- D) Kontrako iztarrira joan zait.

92.- Asteburuetan lagun en etxera joaten zarete:

- A) Lagunengana joaten gara, astegunetan izan ezik.
- B) Lagunenetan egoten gara, astegunetan izan ezik.
- C) Asteburuetan izan ezik, lagun en etxera joaten gara.
- D) Asteburuetan salbu, lagun en etxera joaten gara.

93.- Zein da zuzena?

- A) Puntuatzeko erizpideez, iritzi berekoak dira ia denak.
- B) Puntuatzeko herizpideez, iritzi berekoak dira ia denak.
- C) Puntuatzeko erizpideez, hiritzi berekoak dira hia denak.
- D) Puntuatzeko herizpideez, iritzi berekoak dira iha denak.

94.- Nola esaten zaio lapurtzen duenari?

- A) Ebatzaile.
- B) Ebasle.
- C) Ebalari.
- D) Ebaketari.

95.- Dirudien ez zure lagun bere burua hil zuen.

- A) dena
- B) horrek
- C) minek
- D) mina denari

96.- Galtzen ziharduen eta hogerlekoa ematea ahazten zitzaion.

- A) jokoan-jokoan
- B) joko haretan
- C) txandan
- D) jokoan

97.- Lagunak hauxe eskatu zidan: “Aldizkaria itzuli”

- A) Lagunak aldizkaria itzul dezala eskatu zidan.
- B) Lagunak aldizkaria itzul niezaio eskatu zidan.
- C) Lagunak aldizkaria eskatuz, itzultzeko esan zidan.
- D) Lagunak aldizkaria itzuli niezaiola eskatu zidan.

98.- “Etorriko zarela badaki?” Zer diozu?

- A) Etorriko zarela ea badaki.
- B) Etorriko zaren ea dakien.
- C) Etorriko zarela ea dakien.
- D) Etorriko zaren ea dakiela.

99.- Ikusi bezain laster hartu zuten.

- A) lapurtu zuelako
- B) lapurra izanarren
- C) lapurgaia
- D) lapurtzat

100.- Zuei eta guri loteria tokatu zaigu.

- A) Hala zuri, nola guri loteria tokatu zaigu.
- B) Zuei baita guri loteria tokatu zaigu.
- C) Zuei loteria tokatu zaizue, guri baita ere.
- D) Zuei nahiz eta guri loteria tokatu zaigu.

ERANTZUNAK

1.- B	2.- C	3.- C	4.- C
5.- B	6.- C	7.- A	8.- A
9.- B	10.- B	11.- B	12.- A
13.- C	14.- D	15.- A	16.- D
17.- C	18.- A	19.- A	20.- D
21.- A	22.- C	23.- D	24.- A
25.- C	26.- C	27.- D	28.- A
29.- B	30.- C	31.- A	32.- B
33.- D	34.- C	35.- D	36.- D
37.- A	38.- D	39.- D	40.- D
41.- D	42.- D	43.- A	44.- D
45.- B	46.- B	47.- B	48.- D
49.- C	50.- A	51.- A	52.- D
53.- D	54.- A	55.- D	56.- D
57.- B	58.- B	59.- A	60.- D
61.- B	62.- B	63.- C	64.- D
65.- C	66.- A	67.- D	68.- B
69.- B	70.- C	71.- A	72.- D
73.- B	74.- D	75.- C	76.- D
77.- A	78.- C	79.- A	80.- B
81.- B	82.- D	83.- B	84.- D
85.- B	86.- C	87.- C	88.- A
89.- C	90.- B	91.- D	92.- A
93.- A	94.- B	95.- B	96.- A
97.- D	98.- C	99.- D	100.- A

EMAKUME ASKORENTZAT DENBORA PASA **IZATEN DA EROSKETAK EGITEA**

Andresen amaren urtebetetzea izango da datorren astean, eta Kristinarekin, arrebarekin, hitzartu da amari oparia erosteko. Kristinak badaki amari zer erosi: kokodrilo-zorroa. Hiriko denda guztietara eraman du Kristinak anaia. “Bai. Bai. Zuretzat denak dira politak, denak dotoreak” esaten dio Andresi. “Lehenbailehen bukatzeagatik edo zer gauza erosteko prest. Baina ez al zara konturatu erakutsi diguten poltsa hori amonak ere ez lukeela eramango? Eta aurreko denda horretakoa? Kokodrilo osoak ere ez du hainbeste balio! egiten dio errietan arrebak anaiari. Jasanezina izan da Andresentzat, baina egoskorra da arreba eta gustokoa aurkitu arte ez du etsi.

Josu gizarajoa ere neska-lagunaren erosketak sufritzen ari da. Dendako zutabe bati itsatsita, amorratzen dago “bukatu al du emakume honek! Dagoeneko sei amerikana diferente probatu ditu. Bata estu xamar, bestea lodiegia dela udaberrian ere janzteko, horrek, lotzerakoan ximurrak egiten dizkiola gerrian! Gainera, ez dakit zertarako behar nauen Edurnek ni hemen. Nahi duena erosiko du eta!”

Batentzat gozagarri dena, aspergarri bestearentzat.

Ez gara berdinak

Gizonezkoek -gehienek- ezinbestean egiten dituzte erosketak. Ez dute zer janik izango edo ez dute izozkailuan zerbezarik aurkituko tarteka auzoko hipermerkatutik pasatzen ez badira. Soinean eramango dute oraindik ere gurasoen etxean bizi zireneko alkandora, tarteka arropadenda batean sartzen ez badira. Gizonezkoak behar-beharrez egiten ditu erosketak. Eta nork egin baldin badauka pozik. Zenbat gizon dago oraindik ere emazteak dendatik ekarritako zapatak etxean probatzen dituen? Zenbati ez dizkio amak -edo arrebak- gantzontziloak, galzterdiak edo gorbata bera ere erosten?

Emakumearentzat denborapasa den bitartean, dibertigarri den bitartean, gizonezkoek beste ikuspuntu bat daukate, dendak erosteko dira, ez bestetarako. Horren arabera, erosketaldia honela banatuko da: dendan sartu, behar dena bilatu, aurkitu, ordaindu eta dendatik irten. Ahalik eta denbora gutxienean, gainera.

Oporretan ere berdin

Ez da urte-sasoi jakin bateko “gaitza”. Dena den, merkealdietan eta areagotu egiten da, baita oporretara joaten garenean ere.

Antonek gogoan ditu bere gaztaroko opor haiek. Lagunekin egiten zituen bidaiak bezalakorik! Marrakech, Italia, Tailandia, . . . Urte osoan dirua aurreratzen, baina merezi zuen. Orain, berriz, beldurrez ibili behar neska-lagunarekin oporretara joaten denean. Anak beti aurkitzen du erosteko zerbait. Ez daki zenbat zintzilikario, zenbat egurrezko, portzelanazko edo kristalezko bitxi dituzten logelako edo egongelako apal-hormetan. Oporrek ez dute orain opor ematen, erosketaldi baizik!

Honako 12 galdera hauek textuari buruzkoak dira.

1.- Norekin hitzartu da amari oparia erosteko?

- A) Kristinarekin hitzartu da.
- B) Arrebarekin eta Kristinarekin.
- C) Kristinarekin eta amarekin.

2.- Edurnek dagoeneko 6 amerikana desberdin probatu ditu.

- A) Bata estu xamar, bestea lotzerakoan ximurrak egiten dizkiola lepoan...
- B) Bata estu xamar, bestea lodiegia dela udaberrian ere janzteko...
- C) Bata estu xamar, bestea lodiegia dela udan ere janzteko...

3.- Josuk ez daki zertarako behar ote duen Edurnek.

- A) Edurnek, nahi duena erosiko dio eta.
- B) Josuk nahi duena erosiko du eta.
- C) Berak nahi duena erosiko du eta.

4.- Gizonezkoak ezinbestean sartzen dira dendetan.

- A) Inoiz ez dira sartzen.
- B) Gehienetan sartzen dira.
- C) Derrigorrean sartzen dira.

5.- Gizonezkoek soinean eramango dute oraindik ere etxean bizi zireneko alkondara.

- A) Ez badira tarteka arropadenda batean sartzen.
- B) Norbait erosketak egiteko baldin badauka.
- C) Hipermerkatutik pasatzen direnean.

6.- Gizonezkoak honela betetzen du erosketaldia.

- A) Dendan sartu, behar dena bilatu, aurkitu eta ordaindu.
- B) Dendan sartu, denetik bilatu, aukeratu eta ordaindu.
- C) Dendan sartu, behar dena aurkitu, bilatu eta ordaindu.

7.- Emakumeengan erosteko grina ez da urte-sasoi jakin batekoa.

- A) Sasoiaren daude urte jakin batean.
- B) Urteetako gaitza izaten da.
- C) Urte osoko gaitza da.

8.- Emakumearen erosteko gogo hori...

- A) Oporretan eta merkealdietan areagotu egiten da.
- B) Oporretan eta merkealdietan agortu egiten da.
- C) Oporretan eta merkealdietan aireatu egiten da.

9.- Antonek gogoan ditu bere gaztaroko opor haiek.

- A) Lagunekin egiten zituen bezalako gaztaroak!
- B) Lagunekin egiten zituen bidaiak bezalakorik!
- C) Lagunekin egiten zituen bidaiak gazteagorik!

10.- “Marrakech, Italia, Tailandia...” Zerk merezi zuen?

- A) Urte osoan dirua erretzea.
- B) Urte osoan dirua aurrezteak.
- C) Urte osoan dirua aurkezteak.

11.- Orain, berriz, beldurrez ibili behar neska-lagunarekin oporretan joateko.

- A) Orain, berriro doa beldurrez neska-lagunarekin oporretan.
- B) Orain ere, beldurrak ibili behar oporretara joateko.
- C) Orain, ostera, beldur da neska-lagunarekin oporretara joateko.

12.- Antonen oraingo oporraldiak...

- A) erosketaldi bihurtu dira.
- B) erosketaldiak bideratu dira.
- C) eroskitaldietan bihurtu dira.

13.- Zein da zuzena?

- A) Elurra egingo duela dirudi.
- B) Badirudi elurra egingo duela.
- C) Elurra dakarrela dirudi.
- D) Elurra datorrela dirudi.

14.- Aizkolariak du berriz ere.

- A) tripak bota
- B) nagiak bota
- C) erroak bota
- D) erronka bota

15.- Dieta gogorra egin arren...

- A) ez da bost kilo besterik argaldu.
- B) bost kilo bakarrik argaldu ditu.
- C) bost kilo bakarrik argaldu du.
- D) ez ditu bost kilo besterik argaldu.

16.- Liburua amaitzeko...

- A) dozena bat orrialde falta zaizkit.
- B) dozena bat orrialde falta du.
- C) dozena bat orrialde falta ditut.
- D) dozena bat orrialde falta zait.

17.- Haserre egon ondoren, gaur hurbildu eta...

- A) umore onez mintzatu dit.
- B) umore onakin mintzatu da.
- C) umore onez mintzatu du.
- D) umore onez mintzatu zait.

18.- Atxolin mendiko trikuharri zaharrak...

- A) zutik daude oraindik ere.
- B) oraindikan zutik ditugu.
- C) oraindikan ere zutikan diraute.
- D) zutik dirau oraindik ere.

19.- Aukera ezazu zuzena.

- A) Etxerako bidean lagunduko dizut eta bide batez, poltsak eramaten lagunduko zaitut.
- B) Etxerako bidean lagunduko dizut eta bide batez poltsak eramaten lagunduko dizkizut.
- C) Etxerako bidean lagunduko zaitut eta bide batez poltsak eramaten lagunduko zaitut.
- D) Etxerako bidean lagunduko zaitut eta bide batez poltsak eramaten lagunduko dizut.

20.- Nire eguna dela eta askarira etor zaitezten...

- A) deitu egin zaitut telefonotik.
- B) deitu zaitut telefonoaz.
- C) dei egin zaitut telefonotik.
- D) deitu dizut telefonoz.

21.- Eginbeharreko zerbait ez egiteagatik, kezka ez dadin esaten diozu lagun bati:

- A) Lasai mutila, berdin da eta!
- B) Lasai mutil, berdina da eta!
- C) Lasai mutil, berdin dio eta!
- D) Lasaia mutil, berdin zaio eta!

22.- Txakurra oso jolastari dabil eta traba egiten. Zer diozu?

- A) Heldu ezazu txakurra!
- B) Helduiozu txakurrari!
- C) Hel ezazu txakurrari!
- D) Heldu txakurra!

23.- Itsasoa oso haserre dabil, arrantzaleak etxean gelditu dira.

- A) Itsaso zakarraren beldur dira arrantzaleak.
- B) Itsaso txarrari beldur diote arrantzaleak.
- C) Itsaso txarraren beldur dute arrantzaleek.
- D) Itsaso txarrak beldurra ematen die arrantzaleei.

24.- Kontrolean bi ordutan izan ondoren pakean...

- A) utzi didate.
- B) utzi dit.
- C) utzi nau.
- D) utzi naute.

25.- Jar itzazu gogorrenetik bigunenera.

- A) Buztina, beruna, burnia, zuria.
- B) Burnia, zura, beruna, buztina.
- C) Zura, beruna, burnia, buztina.
- D) Burnia, beruna, buztina, zura.

26.- Zein izaten da handiena?

- A) Haritza.
- B) Sagarrondoa.
- C) Gorostia.
- D) Elorria.

27.- Jar itzazu orden egokian ondorengo adjetiboekin: Gozoa, mikatza, garratza, gazia.

- A) Makailua, basarana, limoia, eztia.
- B) Eztia, limoia, basarana, makailua.
- C) Eztia, basarana, limoia, makailua.
- D) Limoia, basarana, eztia, makailua.

28.- Lagunekin planak egiten bazabiltza, azkenean erabakia hauxe da.

- A) Beno, orduan bihar 6etan elkartzen gara.
- B) Beno, orduan bihar 6etarako elkartzen gara.
- C) Beno, 6etarako elkartuko gara orduan bihar.
- D) Beno, bihar beraz 6etan elkartuko gara.

29.- Lagunak zinemara konbidatu zaitu, baina gaur ez dago emankizunik.

- A) Baina gaur itxita dago zinema!
- B) Baina itxita dago gaur zinema!
- C) Zinema itxita dago barren!
- D) Gaur barren, zinema itxita dago!

30.- Burukominez zaude, eman ezazu aitzakia.

- A) Ez noa klasera burukominak nago eta.
- B) Ez noa klasera eske burukominaz nago.
- C) Ez noa klasera zeren eta burukomina daukat.
- D) Ez noa klasera burukomina dudalako.

31.- Gaueko pelikula, berriz ere Ben-Hur.

- A) Beti pelikula berdina ipintzen dute!
- B) Beti pelikula bera botatzen digute!
- C) Beti pelikula berdintsuak botatzen ari dute!
- D) Beti pelikula iguala ipintzen dihardute!

32.- Umetako lagunekin bilduko zara gaur afarian.

- A) Gaur sekulako afari bat daukagu!
- B) Gaur daukagu afari bat!
- C) Gaur egingo dugu afari bat demasekua!
- D) Gaurkoa bai afaria!

33.- Zein da egokia?

- A) Donostiara joan behar duzue eta ez Iruna.
- B) Donostira joan behar duzue eta ez Iruna.
- C) Donostira joan behar duzue eta ez Irunera.
- D) Donostiara joan behar duzue eta ez Irunera.

34.- Urte betean Irlandan ingelesa ikasten izan ondoren.

- A) Hamabi hilabetetan zehar egon naiz Irlandan.
- B) Hamabi hilabeteak egon naiz Irlandan.
- C) Hamabi hilabetetan egon naiz Irlandan.
- D) Hamabiak hilabete egon naiz Irlandan.

35.- Hauteskundeetan Udalerako aukeratu zaituzte.

- A) Beraz, zinegotziko lanean jardun behar.
- B) Beraz, zinegotzi lanean jardun behar.
- C) Beraz, zinegotzi bezala jardun behar.
- D) Beraz, zinegotzitzat lanean jardun behar.

36.- Aukeratu egokiena.

- A) Eguraldi ona ekarriko duenez, mendira joan nahi nuke.
- B) Eguraldi ona ekarriko duenez, mendira joatea nahi nuke.
- C) Eguraldi ona ekarriko duenez, mendira joatea nahi nintzateke.
- D) Eguraldi ona ekarriko duenez, mendira joatea nahiko nuke.

37.- Kristoren barrabasada egin diote lagunek inuzenteetan.

- A) Hori ez zaio lagun bati egin behar!
- B) Hori ez zaio lagun bateri egiten!
- C) Hori ez zaie laguneri egiten!
- D) Hori ez zenikete lagun bateri egin behar!

38.- “Nire gauzak niretzat eta zureak erdibana” zekenaren legea.

- A) Nire gauzak niretzat eta zeureak ere niretzat.
- B) Neure gauzak neuretzat eta zureak ere neuretzat.
- C) Nire gauzak neuretzat eta zeureak ere neuretzat.
- D) Nire gauzak neuretzat eta zureak ere niretzat.

39.- Hitza ahotik atera baino lehen, ...

- A) zeure burua neurt ezazu.
- B) egin ezak ongi eta ez begira nori.
- C) emaizkiok bi buelta mihiari.
- D) ez fida berritsuen hitz ederretan.

40.- Zer esan nahi du? “Ogi gogorrari hagin zorrotzak”

- A) Gosetuta dagoenarentzat ez dagoela ogi gogorrik.
- B) Hagin zorrotzak dituzula ogi gogorra jateagatik.
- C) Hagin zorrotza dituenak ogi gogorra jan behar duela.
- D) Gosetuta dagoenarentzat ogi gogorra hobea dela.

41.- Zein da zuzena?

- A) Aurrek lotura handiagoa behar dute helduen munduekin.
- B) Haurrak lotura handiagoa behar dute helduen munduarekin.
- C) Haurrek lotura handiagoa behar dute elduen munduarekin.
- D) Haurrek lotura handiagoa behar dute helduen munduarekin.

42.- Kidea aukeratu ezazu: Miren zuloan eror dadin prestatu dute hori.

- A) Miren zulora eroritzeko.
- B) Miren zuloan erortzeko.
- C) Miren zuloan eror dakigun.
- D) Miren zulora eror dezan.

43.- Gu garaiz loguratuta egon behar dugu.

- A) oeratzeko
- B) hoeratzeko
- C) oheratzeko
- D) hogeratzeko

44.- Egur bereziak erosi behar ditu txistuak egiteko. Nork?

- A) Txistugileak.
- B) Txistulariak.
- C) Txistuginak.
- D) Txistugintzak.

45.- Etxetzar hura azkenean erre egin zen. Zein da kidekoa?

- A) Etxe txar hura.
- B) Etxe zahar hura.
- C) Etxe handi hura.
- D) Etxeko zahar hura.

46.- ... arraultzetxoak errun digu, lehenbizikotz gaur.

- A) Oilarrak
- B) Oilaskoak
- C) Txitak
- D) Oilandak

47.- Enekoren aitak hirurogei urte hirurogeitamar ere baditu.

- A) ezik
- B) ezezik
- C) baizik
- D) ordez

48.- Zein da egokia?

- A) Guk euskara darabilgu, berriz, zuk, erdera batua.
- B) Guk euskara darabilgu, berriz zuk erdera batua.
- C) Guk euskara darabilgu, zuk, berriz, erdera batua.
- D) Guk euskara darabilgu, zuk erdera batua berriz.

49.- Gaurko partidua, nork irabazi esan didate.

- A) duela
- B) duen
- C) duena
- D) du

50.- EGA ateratzeko hobeto ikasi behar nuke.

- A) idatzi
- B) idaztea
- C) idazteak
- D) idazten

51.- Zergatik egiten diharduzu horrelako errejimena?

- A) Lirain egon nahi dut eta.
- B) Lirain egoteko.
- C) Liraintzeko.
- D) Lirain egon nahi bait naizelako.

52.- Zein da zuzena?

- A) Hariketa hau noiznahi egin dezakegu.
- B) Ariketa hau noiznahi egin daiteke.
- C) Ariketa au noiznahi egin genezake.
- D) Ariketa hau noiznahi egin daitekeen.

53.- Zein da zure amaren amaginarreba?

- A) Zure erraina.
- B) Zure aitaren koinata.
- C) Zure aitaren amona.
- D) Zure amona.

54.- Futbol partidua hasteaz batera arbitroari harrika hasi zitzaizkion.

- A) Partidua hasterakoan.
- B) Partidua hasi orduko.
- C) Partidua hasteko zenean.
- D) Partidua hasi aurretik.

55.- Gizon horrek makinetan jokatzeari aparte ez du ezer egiten.

- A) Jokatu baizik ez du egiten.
- B) Jokatzeari baizik ez du egiten.
- C) Jolastu baino ez du egiten.
- D) Jolastea baizik ez du egiten.

56.- Gure lagunekin egoteko asmoz etorri gara.

- A) Gure lagunekin egon arren etorri gara.
- B) Gure lagunekin egonagatik etorri gara.
- C) Gure lagunekin egotearren etorri gara.
- D) Gure lagunekin egondagatik etorri gara.

57.- Ase zaude eta ez duzu gehiagorik nahi.

- A) Ez dut ezer ere ez behar.
- B) Ez dut behar ezer ere ez.
- C) Ez dut nahi ezebeaz.
- D) Ez dut nahi ezer ere.

58.- Kotxea konpontzeko norengana jo beharko zenuke?

- A) Garajearengana.
- B) Mekanikariarengana.
- C) Mekanikanira.
- D) Garajera.

59.- Dirurik bazenu, nahi beste eros ahal izango zenuke.

- A) Dirua eduki ezkerre, nahi beste eros zeniezake.
- B) Dirurik baduzu, nahi beste eros ahalko zintezke.
- C) Dirurik bazenu, nahi beste erosiko duzu.
- D) Dirurik izan ezkerre, nahi beste eros zenezake.

60.- Gorantziak denei!

- A) Bai, zure partez.
- B) Zure partetik.
- C) Baita zuei ere.
- D) Bale.

61.- Azkar ez ibiltzearren berandu iritsi zen lanera.

- A) Astiro behintzat ez zen ibili.
- B) Presaka ibili eta berandu heldu zen.
- C) Soseguz ibiltzeagatik gertatu zitzaion.
- D) Aguro ez zen ibili, ordurako heldu zen baina.

62.- Zer dago gaizki? “Beren burua zuritu nahi izan zuen, baina ezin”

- A) “Izan” soberan dago.
- B) “Beren”duen azken -n hori.
- C) “Ezin”ek aditz laguntzailea behar du.
- D) Dagoen bezala ondo dago.

63.- Zeinek apurtu du komuneko konketa?

- A) Ni ez, hori segurua!
- B) Zu izango zinake!
- C) Neuk ez behintzat!
- D) Nik ez gutxienez!

64.- Alkatearen oso handia da.

- A) erantzuna
- B) erantzunkizuna
- C) erantzuera
- D) erantzumena

65.- Kontratupean dihardu lanean hiru hilabeterako.

- A) Gehienera jota ere, hamar mila duro irabaziko ditu.
- B) Gehienez ere, hamar mila duro irabaziko ditu.
- C) Gehienbat ere, hamar mila duro irabaziko da.
- D) Gehiago joten ere, hamar mila duro irabaziko du.

66.- Jendeak hartu nau, txotxolo horien erruz.

- A) ahoz
- B) ahotik
- C) ahoan
- D) ahotan

67.- Jaten duten Santuekin ...

- A) ez begira nori.
- B) ez zaitez fida.
- C) bizi bedi!
- D) poz bitez!

68.- Istripuz hildakoaren hiletan apaizak dio:

- A) Goian egon dadin gure laguna.
- B) Goian egon daiteke gure laguna.
- C) Goian bego gure laguna.
- D) Goian egon beza gure laguna.

69.- Zein da egokia?

- A) Eraman nazak Donostiara lehenbailehen.
- B) Eramaidazu Donostiara lehenbailen.
- C) Eraman iezadak Donostiara lehenbailehen.
- D) Eraman nazazuk Donostiara lehenbailehen.

70.- Zur eta lur gelditu nintzen esan zidanarekin!

- A) Harrizkoa gelditu nintzen.
- B) Harrituta gelditu nintzen.
- C) Arriskua gelditu nintzen.
- D) Harri gelditu nintzen.

71.- Zuzena aukeratu?

- A) Zarautzko haur aberats batek ametsa izan zuen.
- B) Zarautzeko ahur aberats batek ametsa izan zuen.
- C) Zarautzko aur aberatz batek ametxa izan zuen.
- D) Zarauzeko haur aberatz batek ametsa izan zuen.

72.- Basamortu bihurtuko ahal da Lurra?

- A) Ura gaizki erabiltzea agortuko du lurralderen bat.
- B) Uraren alperrigaltzeak oso kaltegarria izango da.
- C) Uraren erabilera okerrak mortu bihurtuko ditu lurralde osoak.
- D) Ur eskasia gero eta arazo gehiago ekarriko du.

73.- Borroka ondoren, lasaitu eta betirako ziren.

- A) lagunek egin
- B) lagunatu
- C) bakeak egin
- D) adiskidetu

74.- Beti esnatzen zaitut nik, noizean behin ez al esna zuk?

- A) ahal didazu
- B) diezadakezu
- C) nazakezu
- C) mozorrotzen
- D) mozorrotzeko

ERANTZUNAK

1.- C	2.- B	3.- C	4.- B
5.- A	6.- C	7.- B	8.- A
9.- C	10.- B	11.- A	12.- C
13.- C	14.- B	15.- C	16.- A
17.- B	18.- A	19.- D	20.- A
21.- B	22.- C	23.- B	24.- C
25.- D	26.- A	27.- B	28.- C
29.- C	30.- C	31.- D	32.- B
33.- D	34.- D	35.- B	36.- A
37.- C	38.- A	39.- B	40.- C
41.- C	42.- D	43.- C	44.- C
45.- A	46.- B	47.- D	48.- B
49.- C	50.- C	51.- A	52.- B
53.- A	54.- A	55.- D	56.- D
57.- B	58.- C	59.- A	60.- D
61.- C	62.- C	63.- B	64.- A
65.- D	66.- C	67.- B	68.- D
69.- A	70.- B	71.- C	72.- B
73.- A	74.- C	75.- A	76.- C
77.- B	78.- D	79.- A	80.- C
81.- A	82.- B	83.- B	84.- C
85.- A	86.- D	87.- B	88.- D
89.- C	90.- B	91.- C	92.- C
93.- C	94.- C	95.- A	96.- D
97.- A	98.- B	99.- B	100.- B

“KANPOTIK EZ DUGU EZER EKARRI BEHAR BERTAN DUGUNA HORI BEZAIN ONA DELAKO”

Aurten Espainako Sari Nazionala jaso du Hilario Arbelaitzek, gastronomia alorrean. Oiartzungo Zuberoa jatetxeko sukaldariak negozio familiarra hartu zuenetik, Zuberoa baserriari eta euskal sukaldaritzazaharrari zenbait berrikuntza egin dizkio.

Gastronomiako kritikoen iritziz, Zuberoa, Arzak eta Bulli dira Estatu espaniarrean jatetxerik onenak. Arbelaitzen ustez, 20 urteko lanaren emaitza litzateke.

ARGIA.- Nola eta noiz hasi zinen sukaldari bezala?

H. ARBELAITZ.- Horrek zerikusi handia du gure baserriaren historiarekin. Zuberoa baserria Oiartzungo zaharrena da, 600 urte inguru izango ditu. Ni jaio nintzenean baserriaren zati txiki bat taberna bat zen eta bertan lau bost mahai zeuden. Auzoko jendearen biltokia zen eta asteburuetan kazuelak eta bazkariak amak eta izebak prestatzen zituzten. Baserrian izaten genituen sagardo bi kupel jendea animatzeko eta zentzu honetan 20 bat urtetan ekin genion. Ikasketak amaitu nituenean, anaia zaharrena nintzenez ama eta izebarekin sukaldean gelditu nintzen, eta duela 20 urte erretegi bezala hasi ginen, egunero bazkariak ematen, jantokiak handitzen eta abar. Garai horretan, sukaldaritzazaharra ikasten hamar bat urte eman nituen, eta gero nere kontu liburuak begiratu eta euskal sukaldaritzazaharriaz arduratu nintzen. Horrela hasi nintzen gauza berriak egiten, beti ere, neretzat oinarritzakoa izan den sukaldaritzazaharra ahaztu eta utzi gabe. Gaur egun, nere kartan dauden platerak forma edota itxura modernoak izan arren, sukalde zaharrean oinarrituta daude.

A.- Lanbide hau ikasteko modu asko daude baina, zein da zure ustez eman behar diren pausoak?

H.A.- Dudarik gabe, neska-mutil gazteak sukaldaritzazaharri joan behar du. Ni ez nintzen joan baina gaur egun funtsezkoa da titulua izatea, bazter guztietan eskatzen bait dute. Gero posible da, jatetxean asko ikastea baina merezi du behetik hasi eta eskolara joateak.

A.- Eta atzerrira joatea?

H.A.- Ikastera joateak merezi du baina, adibidez ni hasi nintzenean ere, kanpoko platerak ekartzeak merezi zuela pentsatu nuen baina gaur egun atzerrira banoa, denbora gehiago emango dut platera nere sukaldaritzazaharri nola moldatu pentsatzen. Ez du balio hemengo sukaldaritzazaharriak, adibidez, frantsez sukaldaritzazaharriekin. Posible da lagungarria izatea baina ez da inoiz plater berdina egin behar. Parisera joan, hona etorri eta berdina jatea izugarritzako huts egitea da. Joatea ondo dago, ikastea ere bai, baina gero guk daukagunari moldatu behar dugu.

A.- Euskal produktuen inguruan ere, eztabaida sortu da, atzerritik datozen produktuak merkeagoak eta hobeak omen direlako. Euskal lehengaiak erabiltzearen alde zaude?

H.A.- Nik erabiltzen ditudanak, denak, bertakoak dira. Adibidez, barazkiak Oiartzungo baserrietatik hartzen ditugu. Kanpoan egiten diren gauza berdinak egitea posible dugu. Ez du merezi Frantziara joateak hemengo lehengaiak onak izanda.

A.- Espainako Gastronomiako Sari Nazional berria jaso duzu. Zer deritzozu horri?

H.A.- Nik egiten ditudan plateren %80 euskal sukaldaritzazaharrikoak dira, gainontzekoak gauza berriak dira. Sari hori izaten da Estatu mailakoa eta sukaldaritzazaharri guztientzat. Nik sari hau jaso

badut, lasaiasko esango nuke saria euskal sukaldaritza berriari eman diotela. Argi eta garbi. Nik egindakoa gustatu zaie eta nere sukaldea euskal sukaldaritza da.

Honako 12 galderak textuari buruzkoak dira.

1.- Aurtengo Espainiako Sari Nazionala jaso du Hilario Arbelaitzek...

- A) margolaritza alorrean.
- B) gastronomia alorrean.
- C) elikadura alorrean.

2.- Bere hastapenak zerekin izan zuen zerikusi handia?

- A) Euskal sukaldaritzaren historiarekin.
- B) Euskal sukaldaritza berriarekin.
- C) Bere baserriaren historiarekin.

3.- Ikasketak bukatu zituenean zer egin zuen?

- A) Atzerrira joan zen.
- B) Baserrian geratu zen.
- C) Sagardoa saltzen hasi zen.

4.- Sukaldaritza zaharra ikasi ondoren zertaz arduratu zen?

- A) Baserriko jantokiaz.
- B) Liburu berriaz.
- C) Sukaldaritza berriaz.

5.- Arbelaitzen ustez, lanbide hau ikasteko zeintzu dira eman behar diren pausoak?

- A) Parisa joan behar da.
- B) Sukaldaritza eskolara joan behar da.
- C) Jatetxeetan ikasi behar da.

6.- Zergatik da funtsezkoa tituluaren jabe izatea?

- A) Bazter guztietan eskatzen bait dute.
- B) Ikasi duzun froga delako.
- C) Zenbait tokitan eskatzen dutelako.

7.- Gaur egun, kanpoko platerak ekartzeak merezi du?

- A) Bai, plater berdinak egiteak merezi du.
- B) Ez du merezi hemengo sukaldaritza nahasteak.
- C) Ez du merezi sukaldaritza berririk sartzeak.

8.- Kanpora joatea ondo dago, baina gero...

- A) han ikasitakoa langungarri izan daiteke.
- B) han ikasitakoa praktikan jarri behar dugu.
- C) guk daukagunari moldatu behar.

9.- Zeren inguruan sortu da eztabaida?

- A) Euskal sukaldaritzaren inguruan.
- B) Euskal produktoen inguruan.
- C) Euskal jatetxeen inguruan.

10.- Atzerriko produktoak nolakoak dira?

- A) Merkeagoak eta gozoagoak omen dira.
- B) Merkeagoak eta hobeak omen dira.
- C) Elikagai hobeak omen dira.

11.- Euskal lehengaiak erabiltzearen alde dago?

- A) Batzutan, edozein tokitakoak erabiltzen ditu.
- B) Frantziakoak oso gustora erabiltzen ditu.
- C) Bai, bertakoak erabiltzen ditu.

12.- Arbelaitzek saria jaso du, baina zer dio honi buruz?

- A) Saria euskal sukaldaritza berriari eman diotela.
- B) Saria euskal sukaldari guztiei eman dietela.
- C) Saria euskal sukaldaritzan arituei eman dietela.

13.- Hiru Errege Mahaira igotzeak ausardia behar du.

- A) betidanik
- B) negu bihotzean
- C) betitik
- D) noiz nahitik

14.- ... egin dio herriak preso izanari.

- A) Harrera onekoa
- B) Ongi etorrikoa
- C) Ongi etorritakoa
- D) Agur unkigarria

15.- Gaztea izan arren dauka.

- A) ahulezian
- B) itxura txarrean
- C) osasun makala
- D) indarge

16.- Atzo goizean esan nuen, gaur Mikel etorriko duk.

- A) nere artean
- B) nere buruari
- C) lagunari
- D) isil entzunean

17.- ... alde egin dute lapurrek, ikusi ditugula ohartu direnean.

- A) Ziztu bizian
- B) Antxintxiketari eman
- C) Beldurrak alde
- D) Izututak

18.- Negozio horretatik ez duzu onik aterako.

- A) gauza zehatzik
- B) aterramendu
- C) irabazirik
- D) gauza garbirik

19.- ... joan baino lehen ikasi behar da igerian.

- A) Ur gatzetan
- B) Ur berotan
- C) Ur handitara
- D) Ur txepeletara

20.- Zer esan nahi du? Oinezkorik nahi ez, zaldizkorik etorri ez.

- A) Bi helburu desberdin baina bat ere ezin burutu.
- B) Handikeriatan ibili eta barregarri gelditu.
- C) Pobrerik nahi ez eta aberatsik etorri ez.
- D) Kasorik egin nahi ez eta besterik etorri ez.

21.- Noiz erabiliko zenuke honako hau? Onean nahi ez baduzu, txarrean.

- A) Gauza bat egiteko gogorik ez eta behartuta egon.
- B) Zerbait aukeratzekotan, hoberena.
- C) Umorerik ez dakazu eta barrezka hasi behar.
- D) Gauza onak bakarrik egin ez, txarrak ere bai.

22.- Etorri handiko bertsolaria da hori: zer adierazi nahi du.

- A) Ospe handikoa dela.
- B) Hitz jario handia duela.
- C) Euskal herri osoan saioak eman dituela.
- D) Azken txapelketan parte hartu duela.

23.- Historikoki eta ekonomikoki elkar loturik aurkitzen diren herriek osaturiko lurraldea:

- A) Estatu.
- B) Herriska.
- C) Herrialde.
- D) Eskualde.

24.- Arraterako bidean goazela erbia irten zaigu biderdira.

- A) lehen bailehen
- B) garaiz
- C) bapatean
- D) sekulan

25.- Neska horrek nere arreba berdin berdinak dira.

- A) deritzot
- B) bezala da
- C) dirudi
- D) dirudit

26.- Sagarrondotik erortzean adaskari heldu zion.

- A) justu-justu
- B) ia ia erori zuen
- C) gogor heltzen ere
- D) hanka apurtu ez zionean

27.- Erle eztirik ez.

- A) berriak
- B) kanpokoak
- C) juanak
- D) loretan

28.- Saria jasotzeko orduan alde egin zuen.

- A) Ausarti handia!
- B) Zelako lotsati!
- C) Zintzoa izanik!
- D) Lotsati halakoa!

29.- Zinera joatekotan ginen baina ez zentozela ikusi dudanean afari ederra prestatu dut, eta honez gero...

- A) zinera joan baino, hobe izango dugu ongi eta lasai afaltzeko.
- B) zinera joan baino, hobe izango dugu ongi eta lasai afaltzea.
- C) zinera joan baino, hobe izango dugu ongi eta lasai afaldurik.
- D) zinera joan baino, hobe izango dugu ongi eta lasai afaltzeari.

30.- Lurrak ez ziren edo hobeki esan, guztionak ziren.

- A) hainak
- B) hemengoak
- C) inorenak
- D) norbaitenak

31.- Ez dugu sinesten gau-txori hori goizeko zazpitan jaikitzen denik.

- A) Bai sinetsiko dugu hiruk baino lehen ez da inoiz oheratzen eta.
- B) Nola dugu sinetsiko hiruk baino lehen ez da inoiz oheratzen eta.
- C) Nola sinetsiten dugu hiruk baino lehen ez da inoiz oheratzen eta.
- D) Nola sinetsiko dugu hirurak baino lehen ez da oheratzen eta.

32.- Hauta ezazu perpausa zuzena. Azterketarako gaiak ongi prestaturik ...

- A) zeramatzazun.
- B) zeneramatzan.
- C) zeramazkiozun.
- D) zeneramaion.

33.- Turkiako zenbait jantokitan, indartzeko, historian zehar afrodisiakotzat hartutako hainbat elikagai eskaintzen dituzte.

- A) Sexologia.
- B) Sexu-grina.
- C) Sexualitatea.
- D) Sexua.

34.- Zein da zuzena?

- A) Nahiz eta merke olioia eskeini arren, ez du erosi nahi izan.
- B) Olioia merke eskeini diote arren, ez du erosi nahi izan.
- C) Nahiz eta olioia merke eskeini, ez du erosi nahi izan.
- D) Olioia merke nahiz eskeini eta, ez du erosi nahi izan.

35.- Amak oheak horrela egiten ditu; horrelaxe egin ditut nik ere: Lotu bi esaldiak.

- A) Amak oheak egin dituen bezala egin ditut.
- B) Amak oheak egiten dituen bezalakoxe egin ditut.
- C) Amak oheak egiten dituen bezalak egin ditut.
- D) Amak oheak egiten dituen bezalakoak egin ditut.

36.- Gurasoak kanpora badoaz, zuek bakarrik ...

- A) konpon zaitezten.
- B) konpon zaitezkete.
- C) konpon zaitezen.
- D) konpon zaitezketen.

37.- Aitak lapurretan harrapatu bazintu ...

- A) etxetik botako zintuzketeten.
- B) etxetik botako zintuzkeen.
- C) etxetik bota zintuzke.
- D) etxetik botako zintuzketen.

38.- Nola esango diogu apaintzeko erabiltzen den tresnari:

- A) Apainduri.
- B) Apaingailu.
- C) Apainketa.
- D) Apainkizun.

39.- Aste barruan zabalik...

- A) larunbatetan ere ez.
- B) larunbatetan ezik.
- C) larunbat ez ezik.
- D) larunbatetan salbu ez.

40.- Hautatu perpausa zuzena:

- A) Zuk niri oheratzea aginduko bazenit, nik ez nizuke jaramonik egingo.
- B) Oheratzea zuk niri aginduko bazenit, ez nizuke jaramonik egingo.
- C) Aginduko zuk niri oheratzea ez nizuke jaramonik egingo.
- D) Zuk niri bazenit aginduko oheratzea ez nizuke jaramonik egingo.

41.- ... amonak bilobentzako planak egiten.

- A) Hau dago ongi!
- B) Plana da hau!
- C) Hau da komeria!
- D) Barregarria da!

42.- Bart ez dut lorik egin.

- A) bat ere ez
- B) batez
- C) batere
- D) batez ere

43.- Zein da zuzena?

- A) Arratsaldean nere maaitik altxatu gabe aritu nintzen lanean.
- B) Arratsaldean nere mahaitik altxatu gabe aritu nintzen lanean.
- C) Arratsaldean nere mahaitik altxatu gabe aritu nintzen lanean.
- D) Arratsaldean maahitik altxatu gabe aritu nintzen lanean.

44.- Bi emakume bizi ziren etxe batean.

- A) elkar
- B) elkarrez
- C) elkarrekin
- D) elkarri

45.- Zuri hainbeste jateak kalte egin ...

- A) diezazueke.
- B) diezazuke.
- C) diezazuekete.
- D) diezazkizueke.

46.- Zein kasuri egokitzen zaio ondorengo esamolde hau? Bertan behera utzi zuen lana.

- A) Lana bukatu ondoren joateari.
- B) Lanean ari den bitartean alde egiteari.
- C) Lana bukatu gabe alde egiteari.
- D) Lana dagoen eran utzirik alde egiteari.

47.- Nik ohean etzatzeko, logura handia izan behar dut. Aukeratu baliokidea.

- A) Ni ohean etzan naizeneko logura handia izan behar dut.
- B) Ni ohean etzan nadineko logura handia izan behar dut.
- C) Ni ohean etzan naizen logura handia izan behar dut.
- D) Ni ohean etzan nadin logura handia izan behar dut.

48.- Zer esan nahi du harrokeria hitzak?

- A) Harridura sortzen duena.
- B) Inor baino gorago izan nahia.
- C) Harria ateratzen den tokia.
- D) Harri ugari dagoen tokia.

49.- Aukeratu zuzen dagoena:

- A) Entzun nahi ba duzue, ba dakizue zer egin behar duzue.
- B) Entzun nahi baduzue, badakizue zer egin behar duzuen.
- C) Entzun nai baduzue, badakizue ser egin bear duzuen.
- D) Entzun nahi ba duzue, badakizue ser egin bear duzuen.

50.- Aukeratu zuzen dagoena.

- A) Inork ez daki ziur zergatik dagoen horrela han goian.
- B) Inork ez daki ziur zergatik dagoela horrela han goian.
- C) Inork ez daki ziur zergatik dagoenik horrela han goian.
- D) Inork ez daki ziur zergatik dagoenean horrela han goian.

51.- Nola esaten zaio aztarnak dauden tokiari?

- A) Aztarnadura.
- B) Aztarnabide.
- C) Aztarnategi.
- D) Aztarnakuntza.

52.- Zer esan nahi du arestian hitzak?

- A) Aspaldi izan zela.
- B) Atzo izan zela.
- C) Duela gutxi izan dela.
- D) Berehala izango dela.

53.- Mendizale horiek ausartak dira; zuek ere bai. Nola lotuko zenituzke bi esaldiok?

- A) Mendizale horiek bezain ausartak gara.
- B) Mendizale horiek bezala ausartak gara.
- C) Mendizale horiek beste ausartak gara.
- D) Mendizale horiek bestelako ausartak gara.

54.- Zuk gu barka edozer gauza egiteko prest gaude.

- A) gaituzu
- B) gaitzazula
- C) gaitzakezu
- D) gaitzazun

55.- Nik ez diot edozein esango, ezta zurekin bizi den ere.

- A) lagunari A) laguneri
- B) laguni B) lagunari
- C) lagunei C) laguni
- D) laguneri D) lagunei

56.- Beltzituko ez zara ba, hainbeste ordu emanda!

- A) eguzkian
- B) eguzkietan
- C) eguzkitan
- D) eguzkin

57.- Aukeratu egokiena.

- A) Eta gauza ohargarriak; berehalaxe ikasi omen zuten gipuzkera.
- B) Eta gauza ohargarria, berehalaxe ikasi omen zuten gipuzkera.
- C) Eta gauz ohargarria berehalaze ikasi omen zuten gipuzkera.
- D) Eta gausa ohargarri, berehalase ikasi omen zuten gipuzkera.

58.- Hori esan eta denak zuloan sartu ziren betiko.

- A) nauka-nauka
- B) epel-epel
- C) makur-makur
- D) argi-argi

59.- Hor ez da inortxo ere bizi, ikusi dut eta.

- A) ni
- B) neu
- C) nik
- D) neuk

60.- ... ni mirestera datorren bat, esan zuen ohiuka.

- A) Hor han!
- B) Hara hori!
- C) Hona hemen!
- D) Horretan!

61.- Eta zer egiten duzu diska horiekin?

- A) Ezer, musika entzun.
- B) Ezer ez, musika entzun.
- C) Ezere, musika entzun.
- D) Ezer ere ez, musika entzun.

62.- Zer da ihintza?

- A) Euria egiten duenean gelditzen diren putzuak.
- B) Goizaldean itxasoan egiten den igerialdia.
- C) Goizaldean belar eta landaretan agertzen diren ur ttantak.
- D) Mendi gailurrera heltzerakoan botatzen den ohia.

63.- Pipa itzal ez xurga iezaiozu.

- A) dakizun
- B) dezazun
- C) dezakezu
- D) dakiten

64.- Janaria hondatzen denean nola esango zenuke?

- A) Onik galdu.
- B) Alferrikakoa.
- C) Alferrik galdu.
- D) Alfer egin.

65.- Egoera larri batean: Zer esamolde erabiliko zenuke?

- A) Barrez itto.
- B) Bihotza apurtu.
- C) Gorriak ikusi.
- D) Moreak pasatu.

66.- Euskal Herrian gaur egun dira goldelari.

- A) aldi batzu
- B) gutxi batzu
- C) bateratsu
- D) batera jota

67.- Egunero etortzen den eskaleari duro bat ematen diot. Aukera ezazu erlatibo nominalizatua.

- A) Egunero etorriko denean duro bat emango diot.
- B) Egunero etorriko denari duro bat emango diot.
- C) Egunero etorri denari duro bat emango diot.
- D) Egunero etortzen denari duro bat emango diot.

68.- Guri etxea erre zaigu eta orain ez daukagu...

- A) inora joateko.
- B) nora joaterik.
- C) nora joan.
- D) inora joan.

69.- Aukera ezazu zuzen dagoena:

- A) 1992ko urtarrilaren 2-a.
- B) 1992eko urtarrilaren 2a.
- C) 1992. urtarrilak 2.
- D) 1992 garreneko urtarrilak 2an.

70.- Itxuraren jabe izan: Noiz erabiliko zenuke esaera hau?

- A) Irudi bezalakoa izan.
- B) Itxura ona izan.
- C) Itxurazkoa izan.
- D) Itxura hutsa ez, balioa ere izan.

71.- Aitzinean aipatzen genuen bezala. Zer esan nahi du?

- A) Aspaldiko kontua dela.
- B) Duela gutxi gertatu dela.
- C) Historia zaharra dela.
- D) Aurretik esan dugula.

72.- Zita duzunean nola erabiliko duzu zer ordutan gelditu.

- A) Bostetan gelditzen gara.
- B) Bostetan geldi gara.
- C) Bostetan geldiko gara.
- D) Bostetan geldituko gara.

73.- Bertagotik ikusita, bi neska besterik ez zirela zuen.

- A) gonbidatu
- B) okurritu
- C) baieztatu
- D) bururatu

74.- Nori burura tabernarik ez dagoen tokira joatea?

- A) daiteke
- B) zezakete
- C) diezaioke
- D) dakioke

75.- Telefonoa hartu eta ea Mikel zegoen galdetu zuen.

- A) Mikel dago!
- B) Mikel dago hor!
- C) Mikel hor al dago!
- D) Hor Mikel dago!

76.- Aukera ezazu ondo dagoena:

- A) Zabalean itsaso miloi gora erditik desberdin espezie bizi dira.
- B) Itsaso zabalean miloi erditik gora bizi dira espezie desberdin.
- C) Itsaso zabalean miloi erditik gora espezie desberdin bizi dira.
- D) Itsaso zabaletik miloi erditik gora espezie desberdin bizi dira.

77.- Zein da zuzena?

- A) Zinez urratz handia egin da Iparraldean gau-eskola sailean.
- B) Sinez urratx handia egin da Iparraldean gau-eskola zailean.
- C) Zinez urrats handia egin da Iparraldean gau-eskola sailean.
- D) Sines urratz handia egin da Iparraldean gau-eskola sailean.

78.- Zein da zuzena?

- A) Aozko komunikabideetan edo entzun-ikusizkoen munduan izan dugu aldaketa handiena.
- B) Aozko komunikabidetan edo entzun-ikusizkoen munduan izan dugu aldaketa handiena.
- C) Ahozko komunikabideetan edo entzun-ikusizkoen munduan izan dugu aldaketa handiena.
- D) Agozko komunikabidetan edo entzun-ikusizkoen munduan izan dugu aldaketa handiena.

79.- Nota altua espero zuen, baina zertxobait bajuago eman zioten. Aukeratu baliokidea.

- A) Notak altu espero zuen bajuago zertxobait baina eman zioten.
- B) Ez zioten eman espero zuen bezain nota ona.
- C) Notak altuak beste espero zuen eta ez zioten eman.
- D) Nota alturik espero zuen eta ez zioten eman.

80.- Baratxuria baino finagoa da. Zer esan nahi du esaldi honek?

- A) Baratxuria gustatzen zaiola.
- B) Baratxuria erabiltzen duela
- C) Baratxuria bezala gogorra dela.
- D) Benetan pertsona fina dela.

81.- Aukeratu zuzen dagoena:

- A) Retegik jolastu zuen ongi.
- B) Retegik ondo jolastu zuen.
- C) Ongi Retegik jokatu zuen.
- D) Retegik ongi jokatu zuen.

82.- Jakin ez dakigu ziur baina...

- A) etxean dagoela.
- B) etxean dago.
- C) etxean dago eta.
- D) etxean omen dago.

83.- Aukera ezazu ondo dagoena.

- A) Tontokeria batengatik ez dugu laguntzarik izan.
- B) Tontokeri batengatik ez dugu laguntzarik izan.
- C) Tontokeri batengatik ez dugu laguntzik izan.
- D) Tontokeria bategatik ez dugu laguntzarik izan.

84.- Egin aukeraketa:

- A) Gauza pila bat daukat baina okelik ez.
- B) Gauza pila bat daukat baina okelik ez.
- C) Gauza pila bat daukat baina okelarik ez.
- D) Gauza pilo bat daukat baina okelarik ez.

85.- Egin aukeraketa:

- A) Nik ez dut uste gizona horrek dirua duena.
- B) Nik ez dut uste gizon horrek dirurik duenik.
- C) Nik ez dut uste gizon horrek dirua duela.
- D) Nik ez dut uste gizon horrek dirurik duelarik.

86.- Dagoenean bonbon ez dagoenean egon. Zein kasutan jarriko zenuke?

- A) Aberatsa zarenean.
- B) Inori laguntza ematean.
- C) Daukazunean farra-farra ibili eta ez duzunean kitto.
- D) Gaztea zarenean.

87.- Urtero egiten dugu bazkaria haurtzaroko lagunok. Aukera ezazu baliokidea.

- A) Urtero egin omen dugu bazkaria haurtzaroko lagunok.
- B) Urtero egin ei dugu bazkaria haurtzaroko lagunok.
- C) Urtero egin ohi dugu bazkaria haurtzaroko lagunok.
- D) Urtero egin uhin dugu bazkaria haurtzaroko lagunok.

88.- Aukera ezazu ondo dagoena:

- A) Oztatu dotore hartako goraberak zirela medio han zebilen...
- B) Oztatu dotore artako gorabeherak zirela medio an zebile...
- C) Oztatu dotore hartako gorabeherak zirela medio han zebilen...
- D) Oztatu dotore hartako goraberak zirela medio han zebilen...

89.- Aukera ezazu dagokion aditza: Amak ni besoetan ... (ekarri)

- A) ekartzen dit.
- B) nakarren.
- C) nakarte.
- D) nakar.

90.- Zuek ni autoz ... (eraman)

- A) eramaten didazue.
- B) naramate.
- C) naraman.
- D) naramazue.

91.- Zuek niri erraz eman pakete hori.

- A) didazue
- B) diezadakezue
- C) diezaigukezue.
- D) diezaizkidazue

92.- Nik zure umeei ipuinak konta ...

- A) diezazkiot.
- B) diezaiot.
- C) diezaiet.
- D) diezaizkiet.

93.- Aukera ezazu zuzen dagoena:

- A) Kupida saitez zeu ere ene zahartzaroaz, agure ilkor hori!
- B) Kupida zaitetz zeu ere ene zahartzaroaz, agure ilkor hori!
- C) Gupida zaitetz zeu ere ene zahartzaroaz, agure hilkor hori!
- D) Gupida zaites zeu ere ene zahartzaroaz, agure hilkor hori!

94.- Aukera ezazu dagokiona: Pentsa agian egun haiek biziki laidotu nituela.

- A) daitezke
- B) zenezake
- C) zenitzake
- D) zenituzke

95.- Belar artean etzango naiz eta aske utziko dut...

- A) entzumena.
- B) oroimena.
- C) ikusmena.
- D) irudimena.

96.- Bere alabaren gorpua hartuta margoturiko hilobian zuen.

- A) gogoetan
- B) igorri
- C) ehortzi
- D) laidatu

97.- Zuk anaiari galtzak jos jostorratza behar duzu.

- A) diezaioten
- B) diezazkiozun
- C) diezaiozun
- D) diezaion

98.- Pellori istripu horren irudia burutik ken...

- A) diezazkioke.
- B) diezaiokegu.
- C) diezaiogun.
- D) diezaiegun.

99.- Zuek izebari hilero gutun bat idatz...

- A) diezaiokezue.
- B) diezazkiozue.
- C) diezaieke.
- D) diezaieten.

100.- Koldok lan hori bukaera eman zain gaude.

- A) dakien
- B) diezaien
- C) diezaion
- D) diezazkion

ERANTZUNAK

1.- B	2.- C	3.- B	4.- C
5.- B	6.- B	7.- B	8.- C
9.- B	10.- B	11.- C	12.- A
13.- B	14.- D	15.- C	16.- A
17.- A	18.- B	19.- C	20.- C
21.- A	22.- B	23.- D	24.- C
25.- C	26.- A	27.- C	28.- D
29.- B	30.- C	31.- D	32.- B
33.- B	34.- C	35.- A	36.- B
37.- B	38.- B	39.- B	40.- A
41.- C	42.- C	43.- C	44.- C
45.- B	46.- D	47.- D	48.- B
49.- B	50.- A	51.- C	52.- C
53.- A	54.- D	55.- B	56.- C
57.- B	58.- C	59.- D	60.- C
61.- B	62.- C	63.- A	64.- C
65.- C	66.- B	67.- D	68.- C
69.- D	70.- D	71.- D	72.- D
73.- C	74.- D	75.- C	76.- C
77.- C	78.- C	79.- B	80.- D
81.- D	82.- D	83.- D	84.- C
85.- B	86.- C	87.- C	88.- C
89.- D	90.- D	91.- B	92.- D
93.- C	94.- B	95.- D	96.- C
97.- B	98.- B	99.- A	100.- C

HITZERAKO ESKUBIDEA

Hasieratik bertatik agerian dago kontraesana: haurrak hitzegiteko eskubide baduela aitortzean, ez al zaio ukatzen bere ezaugarri nagusia, ez dakiena izatea, alegia, hitzegiten ez duena, iritzirik emateko eskubiderik ez duena izatea? Etimologiaren aldetik -infans-, hitzegiten ez duena da haurra. Eta hitzegiten hasten denean, helduek sarri isilerazten dute: "Ixo!".

Eskubide kontraesanez betea hauxe eta, ondorioz, sarri eztabaidatua: kultura askotan, gazteek ez dute hitzegi behar zaharren aurrean. Hitzegitea, haienganako begirunerik ez izatea litza-teke. Eta Michael Durojaye psikiatra nigeriarrak ondo azpimarratzen du bizitzen zaila izan daitekeen kontraesan hori: etxean, leinuan isilik egon beharra ezartzen zaion bitartean, eskolan hitzegitera bultzatzen zaio haurrari.

Eskubide bat sarri nekez erabil daitekeena: Raymond Illsley soziologo britaniarrak dioenez, baliapide gutxiko giroetan bizi diren hurrek 300 bat hitz dituen hiztegi urria erabili ohi dute, maiz traketsa, eta hitzen jatorrizko esanahitik apartatua gainera. Orduan ere, erabat bestelako hizkuntza ezartzen saiatzen da eskola.

Eskubide mugatua: zertarako balio du, bati jaramonik egiten ez badiote? Hori da, beraz, haur askoren patua hitzegiteko eskubidea ukatzen ez duten kulturetan, haietan ere helduek gauza "serioak" bait dituzte eskuartean, txikien oharrei edo arazoei jaramon egiteko. "Ixo", "itxaron pixkat", "geroago", Gabriela Mistral Txileko poetak hain polito esango zukeen bezala, haurra denean: "haurrak ezin du itxaron, bere izena gaur da".

"HASIERAN HITZA ZEN"

(San Joanen Ebanjelioa, I, 1)

Bibliak egiten duen adierazpen hau baliozko al da haurrarentzat? Zalantzarik gabe ez, adierazpena hitzarekin erabat berdintzen bada: esan dugu, haurtxoak ez du hitzegiten. Baina ahoskatzen hasi aurretik dagoeneko, niniak hitzik gabeko hizkera erabiltzen du.

Psikologo, pediatra, haurtxoari buruzko jakitun askoren lanek irakatsi digute aspaldiko urteetan haurtxo txikia gai dela, hainbat zentzu desberdin duten bere begiradak, imintzioak, keinuak, irribarrea edo negarra erabiliz, amarekin, gurasoekin edo jaramon egiten dion helduekin harremanak izateko.

Eta hauek haren deiarri erantzuten baldin badakite, beren eta haurraren artean benetako harreman bat sortzen da, garapen eragile indartsu bat, batez ere harreman hauek maitasunezko giro batean egiten badira. France Straus-ek erakutsi du egun gutxiko haur batek ahoska dezakeela amaren ahoskaketei erantzunez, baldin begien eta maitasunaren bidezko "lotura" bat badago. Haurtxo kantaria, nini xuxurlaria, lehen silabak ez dira urruti: hizkuntza guztietan, "ama" eta "aita" bezala ulertzen dira silabaok, gurasoen poz handirako, hauek beren egitekoan sendotzen direlarik.

Haurra liseriketa hoditzat zeukan iritzia, jateko premia aseztu gero dena egin zegoela uste zuen iritzia aspaldi galdu zen. Baina oraindik asko falta da osoko pertsonatzat aitortua dadin eta, baldintzarik onenetan, gizakiaren ezaugarriarik funtsezkoena den hitzezko hizkerara heltzen lagun egin dakion.

"Hizkuntzaren garapena haurraren asmaezinezko ezkutuki da oraindik", idatzi zuen mende honen hasieran Stijn Streuvels poeta flamandarrak. Gaur ez da hori guztiz egiazko, ezagutzen ez den hainbat badago ere oraindik. Ezaguna da gaur egun zenbateko garrantzia duen hizkuntz murgilketak haurrak hitza eta zentzua eskura ditzan, horiek gabe ez bait dago hizkuntzarik.

Haurri hitza irakastea hari hitzegitea da, haren galderei erantzutea, harekin xamurtasunez, pazientziaz, maitasunez ihardutea.

Hainbat hurrek mintzamenean atzerapenik izan ohi badu, sarri da, antzeman ez den gortasun baten ondorioz, ez duelako entzuten: argibiderik ez duen atzerapen batek haurraren entzumen gaitasuna aztertzerara eraman behar du.

**UNESKOren Aldizkaria.
83.alea, 1991ko ABENDUA**

Honako 12 galdera hauek textuari buruzkoak dira.

1.- Haurrak, hitzegiteko eskubidea izan arren, hitzegiten hasten denean, zer galeratzen zaio?

- A) Isilaraztea.
- B) Iritzia ematea.
- C) Bere izana.

2.- Kultura askotan, gazteek ez dute hitzegiri behar zaharren aurrean...

- A) begirune eza litzateke eta.
- B) bizitza zaila litzateke eta.
- C) printzipioz.

3.- Umeek jatorrizko esanahitik apartatuko hizkuntzan izaten dituzten hutsuneak bideratzeko, zertaz baliatzen dira?

- A) Soziologoez.
- B) Etxeko giroaz.
- C) Eskolaz.

4.- Helduek zergatik ez diete kasorik egiten umeen esanei?

- A) Umeen esanen seriotasun ezagatik.
- B) Haurrak itxaron dezakeelako.
- C) Poeta Txiletarrak esaten duelako.

5.- Haurtxoak hitzegiten ez badu, ezin duela harremanik izan esan nahi al du?

- A) Ez da gai harremanak izateko.
- B) Bakarrik amarekin izan dezake harremana.
- C) Gai da harremanak izateko.

6.- Zeren bidez lortzen du haurrak komunikazio harremana?

- A) Ahoskatzen dituen hitzen bidez.
- B) Begirada, imintzio eta irribarraren bidez.
- C) Soilik negar eginez.

7.- Heldu eta haurren arteko harremanetan zer izaten da kontutan?

- A) Helduen deia.
- B) Elikatzea.
- C) Maitasuna.

8.- Haurrari buruzko zein iritzi galdu zen aspaldi?

- A) Hitzegitera lagundu behar zitzaiena.
- B) Umea asetzen bazen dena egina zegoena.
- C) Pertsonatzat aitortu behar zena.

9.- Streuvels poeta flamandarren teoriak baliagarriak al dira gaur egun?

- A) Ez dira osoki baliagarriak.
- B) Guztiz egiazkoak dira.
- C) Ezkutuan daude oraindik.

10.- Hizkuntz murgilketaren bidez, zer irakasten zaio umeari?

- A) Isilik egoten.
- B) Entzumena lantzen.
- C) Hitza eta zentzua eskuratzen.

11.- Zer da umeari hitzegitea?

- A) Haurrari hitza irakastea.
- B) Jaten ematea.
- C) So egitea.

12.- Haurrari, zer dakarkio gortasunak?

- A) Argitu ezina.
- B) Entzumena aztertu ezina.
- C) Mintzamenean atzerapena.

13.- Norengana zuzendu dira kazetariak?

- A) Arduradunarengana.
- B) Arduradurarengana.
- C) Arduradunarenganantz.
- D) Arduradunarenganako.

14.- Zeharo aspertuta gaude; beraz,...

- A) agintariarengana joango gara.
- B) sendagileari deituko diogu.
- C) zinemara joango gara.
- D) eskuak garbituko ditugu.

15.- Zein da udazkeneko hirugarren hilabetea?

- A) Apirila.
- B) Urtarrila.
- C) Azaroa.
- D) Abuztua.

16.- Gazteak baloiaren korrika doaz.

- A) alboan
- B) atzetik
- C) ezkerrean
- D) aurrean

17.- Ikastolako sarreran egongo naiz. Zein galdera dagokio?

- A) Noiztik egon zara?
- B) Nondik egon zara?
- C) Norekin egon zara?
- D) Non egon zara?

18.- Autoz ekarri zaituztet Bilbora. Zein galdera dagokio?

- A) Nolaz ekarri gaituzu?
- B) Non ekarri gaituzu?
- C) Nola ekarri gaituzu?
- D) Zerez ekarri gaituzu?

19.- Zer adierazten du “Hori kalekumea da” esaldiak.

- A) Beti kalean ibiltzen dela.
- B) Baserri giroa gustatzen zaiola.
- C) Kalea atsegin duela.
- D) Kalean bizi dela.

20.- Aukera ezazu, “jabetu” hitzaren sinonimoa.

- A) Ohartu.
- B) Lortu.
- C) Lotu.
- D) Indartu.

21.- Sar gaitezkeela adierazteko?

- A) Nahi duzuenara sar zaitezke.
- B) Nahia duzunean sar dezake.
- C) Nahi duzuenara sar dezake.
- D) Nahi duzuenara sar zaitezke.

22.- Aukera ezazu “Etorri dela uste dut” esaldiaren parekoa.

- A) Etorri delakoan nago.
- B) Etorri delako nagoen.
- C) Etorri delakoaren nago.
- D) Etorri dela nago.

23.- Zuzendariari, lanean sartu bezain laster, zer egin behar duzuen galdetzen...

- A) diozue.
- B) diozute.
- C) dizute.
- D) diezue.

24.- Zer adierazten du -TZA atzizkiak?

- A) Bakardadea.
- B) Urritasuna.
- C) Ugaritasuna.
- D) Maiztasuna.

25.- Zuek, ez dakizue batzar hartan zeri hitzegin zuten.

- A) berriro A) buruz
- B) berriz B) buruz
- C) ordeztu C) buruz
- D) behintzat D) buru

26.- Zenbat bost pezetako behar dituzu lau kilo udare erosi nahi badituzu, kontutan izanik, kilo bat udarek 80 pezeta balio dituela.

- A) Hirurogeitabi ogerleko.
- B) Laurogeitahamabi ogerleko.
- C) Larogitabi ogerleko.
- D) Hirurogeitalau ogerleko.

27.- Don, don egingo dugu, nori tokatuko zaion jakiteko.

- A) Zurrut egingo dugu, ea nori suertatzen zaion.
- B) Txotx ala motx egingo dugu.
- C) Putz egingo dugu.
- D) Zalaparta egingo dugu.

28.- Sagarrondo horretatik ...

- A) ezin dira sagarrik hartu.
- B) ezin dira sagarrak hartu.
- C) ezin da sagarra hartu.
- D) ezin da sagarrik hartu.

29.- Gogoratzen dugu zuek nondik egun hartan.

- A) zentozen
- B) zetorren
- C) zetozen
- D) zentozten

30.- Nik ez dakit...

- A) ume txikiei jaten ematen.
- B) ume txikiei jatea ematen.
- C) ume txikiei jaten eman.
- D) ume txikiei jan ematen.

31.- Zein da zuzena!

- A) Talde antimilitarista bat sortzea nahi dugu.
- B) Talde antimilitarista bat sortzen nahi dugu.
- C) Talde antimilitarista bat sortu nahi dugu.
- D) Talde antimilitarista bat sortuz nahi dugu.

32.- Non datza basoen izurritea?

- A) Mendietan.
- B) Ibaietan.
- C) Leizazuluetan.
- D) Suteetan.

33.- Gaurko hitzaldira ez da hizlaria etorri; hizlariordea...

- A) ezik.
- B) baina.
- C) baizik.
- D) ordea.

34.- Oporretan Italiara joan gara eta ez dugu oparirik ekarri.

- A) inori
- B) inorentzat
- C) edonori
- D) inorengan

35.- Ez pentsa, guk ere zuek lan egin genuen herenegun.

- A) adin
- B) beste
- C) bezain
- D) bezalako

36.- Gizarte honetan lanpostu bat lortzeko ...

- A) zuzendariari musua eman behar diozu.
- B) azterketarik ez duzu egin behar.
- C) nahitaez azterketak egin behar dituzu.
- D) azterketa leihotik behera bota behar duzu.

37.- Zergatik ireki duzue atea?

- A) Barruan, bero handia zegoelako.
- B) Euria ari zuelako.
- C) Irekita zegoelako.
- D) Lagunak sartzeko.

38.- Neska hau amaren gona azpian ibiltzen da beti, da.

- A) amazuloa
- B) amakorra
- C) amatia
- D) amabera

39.- Inoiz ez duenez, txistea kontatu diote.

- A) negarrik egiten
- B) lanik egiten
- C) lorik egiten
- D) barrerik egiten

40.- Hankaz gora zegoen jostailua, buruz behera jarri genuen.

- A) Buelta eman genion.
- B) Hankak behera begira geratu zitzaizkion.
- C) Burua ez zitzaion gora begira geratu.
- D) Ez zitzaion burua zuzen geratu.

41.- ... ez da ezer gertatu.

- A) Berandu iristez gero
- B) Berandu iritsi arren
- C) Berandu iristekotan
- D) Berandu iristen

42.- Mutrikurantz izugarrizko istripua ikusi genuen.

- A) joaten ari ginela
- B) gindoazela
- C) joaten ginela
- D) gindoaztela

43.- Zure etxea da.

- A) handiegia
- B) handiegi
- C) handiago
- D) handiegoa

44.- Eguneroko bizimoduan entzuten ditugun zaraten soinu maila oso altua da.

- A) ohizko
- B) ohirazkoen
- C) normalak
- D) ohitutakoen

45.- Autobus geltokira teila erori zitzaion.

- A) joaten noala
- B) nindoala
- C) nindoanez
- D) zihoala

46.- Zein da zuzena?

- A) Nik zuk baino urte gehiago daukat.
- B) Nik zu baino urte gehiago daukat.
- C) Nik zuk baino urte gehiagoa daukat.
- D) Ni zu baino urte gehiago daukat.

47.- ... zinemara joan ginen.

- A) Etzidamu
- B) Atzo
- C) Etzi
- D) Biharamunean

48.- Ez ikusteaz gain, entzun ere ez du entzuten.

- A) Gogorra da.
- B) Oso burugogorra da.
- C) Gorra da.
- D) Belarri-motza da.

49.- Loterian irabaztea tokatuko txanpainez ospatuko ...

- A) balitzaigu A) genuke.
- B) baligu B) genuke.
- C) balitzaigu C) ginateke.
- D) balitzaiguke D) ginateke.

50.- Ez dago hori egiteko eskubiderik.

- A) Ez diezaioke hori egin.
- B) Ez daiteke hori egin.
- C) Ez dezake hori egin.
- D) Ez diezaiokegu hori egin.

51.- Portugalera joateko dirua aldatu behar izan duzu; noiz joango zara?

- A) Hamabi egun barru.
- B) Atzo.
- C) Iaz.
- D) Duela bi urte.

52.- Eztia hartuta ere, ez zaio ...

- A) arnasa kendu.
- B) zorabioa kendu.
- C) eztula kendu.
- D) beldurra kendu.

53.- Etxeratzerako babarrunen ura agortuta zegoen.

- A) Lapikotik ihes egin zuten babarrunek.
- B) Lapikoa urez gainezka zegoen.
- C) Tipula falta zitzaien babarrunei.
- D) Ura bota behar izan nien babarrunei.

54.- Lana, bakoitzak egin behar du.

- A) Lana, nork berea egin behar du.
- B) Lan, bana egin behar da.
- C) Lana, banatu egin behar da.
- D) Lan, bat bakarra egin behar da.

55.- Filmea ikusteaz bat eman zion negarrari. Zer galdera dagokio?

- A) Nori eman zion negarra filmeaz ikusteaz bat?
- B) Zer eman zion negarrari filmea ikusteaz bat?
- C) Noiz eman zion negarrari?
- D) Zergatik eman zion negarrari filmea ikusteaz bat?

56.- Ez ez zaitez etor.

- A) laguntzen
- B) lagunharekin
- C) laguntzekotan
- D) laguntzea

57.- Jatetxe horretako greba egin zuten.

- A) sukaltzaileek
- B) sukaldariak
- C) sukaldariak
- D) sukaldaileek

58.- Gure baserrira norbait etorri izan, ez haserretuko.

- A) bazen A) ginateke
- B) balitz B) ginatekeen
- C) balizu C) ginatekeen
- D) banintz D) ginateke

59.- Aukera ezazu ondo dagoena.

- A) Hurrengo urteraino ez dugu lanik izango.
- B) Hurrengo urte arte ez dugu lanik izango.
- C) Hurrengo urtetaraino ez dugu lanik izango.
- D) Hurrengo urteen arte ez dugu lanik izango.

60.- Komuneko iturria ura dago.

- A) zeriola
- B) isuri dio
- C) dariola
- D) ari zaio

61.- Oraingoan, herrikoei biharko festa antolatzea.

- A) deritzo
- B) darie
- C) dagokio
- D) dagokie

62.- Petroleo kupelak New-York-en gora egin du, baita Bilboko Boltsan ere.

- A) Petroleoa, Bilboko Boltsan bakarrik igo da.
- B) Petroleo kupelak merkatu egin dira.
- C) Petroleoa berriro garestitu egin da.
- D) Azoka guztietan igo da petroleoa, New-York eta Bilbokoetan ezik.

63.- Haiek gure liburuaren itzulpena egin ...

- A) diezaguketen.
- B) diezagukete.
- C) diezagukezu.
- D) diezazkigukete.

64.- Orain dela gutxi, alemaniera ikasteari gogor ekin dio.

- A) Alemaniera ikasten buruz ari da.
- B) Alemaniera ikasten buru belarri ari da.
- C) Alemaniera ikasten buru belarri hasi da.
- D) Alemaniera ikasten buruz belarri ari da.

65.- Ez dakit ziur, baina lehengusuak bazkaltzera etorriko nago.

- A) direnekoan
- B) direlakoan
- C) direla
- D) direlarik

66.- Ez nekien ingelesik, baina bertakoekin konpondu ginen.

- A) nonbait
- B) nolabait
- C) ote
- D) nonbait ere

67.- Zure motoa hondatuko ez lagunduko.

- A) balitzait A) nizukeen
- B) balitzaizu B) nizuke
- C) balitzaizu C) nizukeen
- D) balitzaio D) zenidake

68.- Eibarren baserriek galera handia ezagutu dutela digu Josefinak.

- A) gogoratuko arazi
- B) gogora arazi
- C) gogoratzen arazten
- D) gogoratu araziz

69.- Gezur bat konta agindu zigun.

- A) dezagula
- B) geniezaiola
- C) zeniezaiotela
- D) diezaiogun

70.- Zure izugarria da.

- A) irudipena
- B) irudimena
- C) irudigarria
- D) iruditasuna

71.- Oso giro lasaia zen eta konfidantza zegoen gure artean.

- A) txarra
- B) asko
- C) ikaragarria
- D) ikaragarriago

72.- Guk sarritan piper egiten genuen. Zer adierazten du esaera honek?

- A) Piperrak poteetan sartzen genituela.
- B) Piperrak gorriak zirela.
- C) Piper jana egiten genuela.
- D) Gogorik ez geneukanean ez ginela eskolara joaten.

73.- Eskola horretan darabilten metodoa oso klasikoa da.

- A) irakasmena
- B) irakaspena
- C) irakaskuntza
- D) irakasgarria

74.- Perretxiku hauek jaten baditugu, ondoezen bat gerta esan digu auzokoak.

- A) dakigukeela
- B) dakigukeen
- C) dakigun
- D) zekigukeen

75.- Aztertzeke modukoa zela pentsatu genuen; horregatik bera ere etor zedin eskatu genion.

- A) Bagenuen zerbait aztertzeke, horretarako esan genion etortzeke.
- B) Aztertzekeorik izan arren, ez genion etortzekeorik eskatu.
- C) Etor zedin ahaleginak egin bagenituen ere, bera ez zen etorri.
- D) Nahiz eta ikaragarri pentsatu, ez genion etortzekeorik esan.

76.- Zoritxarren bat gerta susmoa zuen zure amonak.

- A) dakionaren
- B) ziezaionaren
- C) zekiokenaren
- D) dakiokenaren

77.- Umeak hurbildu, gure amonak gozoki bana emango ...

- A) balitzaizkio A) ziekeen.
- B) balitzaioke B) zieken.
- C) balitzaio C) liekeen.
- D) balitzaizkio D) zieke.

78.- Zure lagun horiek ingelesa ikasten Londonen?

- A) zihardute
- B) ziharduten
- C) dihardute
- D) darabiltzate

79.- Zure aitona ezkorra nengoen, baina oker nengoen.

- A) zelakoan
- B) zela
- C) delako
- D) zegoelakoan

80.- Zoragarria izan zen Ipuruan antolatu zen jaialdia; aspaldian izan den kontzerturik zalantzarik gabe.

- A) politen
- B) politeneko
- C) politenetakoa
- D) polita

81.- Diruz josita dago hori. Zer adierazten du?

- A) Oso dotorea dela.
- B) Aberatsa dela.
- C) Langilea dela.
- D) Ugazaba dela.

82.- Dirulaguntza lor bere laguntza eskaini ziguten.

- A) geniezan
- B) dezagun
- C) genezan
- D) genezala

83.- ... abiatzekotan, oraintxe bertan abiatzea dugu.

- A) Inork
- B) Inoiz
- C) Inorekin
- D) Nonbait

84.- Abiadura handiegia eramateagatik, hogeitamar mila pezetako jarri diote Amaiari.

- A) isuna
- B) oparia
- C) oharra
- D) arrenkura

85.- Nire irudimena zurea ona da.

- A) beste
- B) adina
- C) bezain
- D) ordea

86.- Leku ederrean dago gure EGA tituloa! Zer adierazten du esaera honek?

- A) Donostian dagoela.
- B) Asko kostatuko zaigula lortzea.
- C) Bitrina dotore batetan dagoela.
- D) Lortu dugula.

87.- Bihar ekingo diogu.

- A) lana
- B) lan
- C) lanari
- D) lanean

88.- ... bihar eguraldi txarra egingo duela gure kostaldean.

- A) Beharbada
- B) Badirudi
- C) Dirudienez
- D) Agian

89.- Niri Donostia gustatzen zait zuri Bilbo.

- A) beraz
- B) beste
- C) ostera
- D) batez ere

90.- Garai batetan baserritar jeitsiko ginen herrira astoz.

- A) ehundaka bat
- B) ehuna bat
- C) ehuneko bat
- D) ehunen bat

91.-Zirt edo zart egin behar dugu! Zer adierazten du esaera honek?

- A) Apurtu behar dugula.
- B) Belarrondokoa eman behar diogula.
- C) Erabaki behar dugula.
- D) Oparia egin behar diogula.

92.- Azua auzoko etxeko andreek baino ez diote ohitura jarraitzen.

- A) honi
- B) honeri
- C) hauei
- D) honekin

93.- Eibarko politena Untzagan dago.

- A) etxea
- B) etxe
- C) etxerik
- D) etxeak

94.- Zer adierazten du esaera honek: Ok egin arte jan genuen.

- A) Ziz batean jan genuen.
- B) Guztiok jan genuela.
- C) Guztia jan genuela.
- D) Larregi jan genuela.

95.- Gaur gauean izugarritzko haize zarata egon da.

- A) ote
- B) ohei
- C) omen
- D) eta

96.- Gu gurasoei joan, dagoeneko afalduta zeuden.

- A) gintzaizkienean
- B) ginenean
- C) garenean
- D) gatzaiizkienean

97.- Gaur ama kalean ikusiko dirua eskatuko ...

- A) banu A) nioke.
- B) banuke B) nioke.
- C) banu C) nuke.
- D) banio D) nioke.

98.- Tabernako ate-zulotik kanpora atera den txakur beltzak, burua batera eta bestera erne baina patxadaz mugitu, gizon arrotzari begirada labur bat zuzendu eta poliki-poliki alde egin du.

- A) Txakurrak, kontu handiz begirada bat zuzendu ondoren, poliki-poliki alde egin du.
- B) Txakur beltza kalean sartu den gizon arrotzari begiratu gabe irten da.
- C) Txakur beltza poliki-poliki eta gizon arrotzari begiratu gabe irten da.
- D) Txakur beltzak gizon arrotza ikusi duenean zuloan geratzea pentsatu du.

99.- Lan hori egiteko aukeratuko benetan eskertuko ...

- A) banindute A) nuke.
- B) balidate B) nukeen.
- C) balidakete C) nieke.
- D) bani D) nituzke.

100.- Peiok, denbora laburrez, konputagailu eta antzeko tresna berri-berriak bereganatu zituen maisu-maistra etsituen haserrerako.

- A) Peiok, konputagailu, ikusgailu, entzungailu eta antzeko tresna berri-berriak bereganatu zituen maisu-maistra etsituen haserrerako.
- B) Peiok, maisu-maistra itsuen haserrerako, zenbait tresna berri erosi zituen.
- C) Peiok, maisu-maistra etsituen haserrerako, zenbait tresna zaharren berri bereganatu zuen.
- D) Peiok maisu-maistra laguntza behar izan zuen konputagailu eta antzeko tresna berriak bereganatzeko.

ERANTZUNAK

1.- B	2.- A	3.- C	4.- A
5.- C	6.- B	7.- C	8.- B
9.- A	10.- C	11.- A	12.- C
13.- A	14.- C	15.- C	16.- B
17.- D	18.- D	19.- D	20.- A
21.- D	22.- A	23.- A	24.- C
25.- B	26.- D	27.- B	28.- D
29.- D	30.- A	31.- C	32.- D
33.- C	34.- B	35.- B	36.- C
37.- A	38.- A	39.- D	40.- A
41.- B	42.- B	43.- A	44.- A
45.- D	46.- A	47.- B	48.- C
49.- A	50.- B	51.- A	52.- C
53.- D	54.- A	55.- C	56.- C
57.- B	58.- B	59.- B	60.- C
61.- D	62.- C	63.- B	64.- B
65.- B	66.- B	67.- B	68.- B
69.- B	70.- B	71.- C	72.- D
73.- C	74.- A	75.- A	76.- C
77.- A	78.- C	79.- A	80.- C
81.- B	82.- C	83.- B	84.- A
85.- C	86.- B	87.- C	88.- B
89.- C	90.- D	91.- C	92.- A
93.- C	94.- D	95.- C	96.- A
97.- A	98.- A	99.- A	100.- A

JOXEMIEL BARANDIARAN JAIO ZELA 102 URTE

ZURI, ATAUNDAR HORRI !

Joanak joan, bizitzak aurrera darrai. Baina zer hondare utzi digu guri ataundarro Joxemielek? Denok dakigu, Ataunen bera hil ezkeru zerbait-norbait falta dela. Saminak jota utzi gaitu baina, ezin dugu etsi!

Askoren ustez, liburu pila bat eta antigualeko gauza zaharrak besterik ez digu utzi. Beharbada, gaurko mundurako balio gehiegirik ez dutenak gainera, gaurko mundu modernu honetan bizi izan ez balitz bezala. Hala ere, liburuak liburu, zerbait gehixeago somatzen da edo somatu behar litzateke, behintzat, inguruotan.

Hainbeste ohore, omenaldi, aipamen, izendapen, domina, gurutze, irudi, lumak... izango ahal du orma bazterren batean zintzilika irautea baino etekin onuragarriagorik!

Joxemielek Ataunen beharra izan du. Ataunek berea izan duen bezalaxe. Beraz, bada garaia, alde horretatik, ataundarron erantzukizuna finkatzeko, eta horra hor berak egiten zuena: inguruaz ezagutu eta maitatu. Mendiak, bideak, esaundalekuak, erreka, itzala, egutera, egunsentia, ilunabarra, ifarra, izena, izana,... ekia.

